

**Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak:
gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari**

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari. *Fontes Linguae Vasconum*, Institución Príncipe de Viana - Gobierno de Navarra, 2015, 119, pp.109-146. artxibo-01205714

HAL Id: artxibo-01205714

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01205714>

Submitted on 29 Sep 2015

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

FONTES LINGVÆ VASCONVM stvdia et docvmenta



Oztibarreko mintzoaz eta haren lexikoaz <i>Itñaki Camino</i>	5
Aurizko aldaeraren inguruan (Aurizko eta Orreagako euskararen lagin batzuk) <i>Koldo Artola</i>	61
Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari <i>Ekaitz Santazilia</i>	109
La carta bilingüe de Matxin de Zalba (1416). El iceberg lingüístico navarro <i>Peio Monteano</i>	147
<i>Saroi</i> entitate geografikoaren banaketa, esanahia eta etorkia toponimiaren argitan <i>Luis Mari Zaldua Etxabe</i>	175

Año XLVII
Número 119
2015

FONTES LINGVÆ VASCONVM stvdia et docvmenta



SEPARATA

Año XLVII • Número 119 • 2015

Garai arkaikoko euskara nafarraren
lekukotasun berriak: gehiketak eta
zuzenketak F. Maioraren liburuari

EKAITZ SANTAZILIA

Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari

EKAITZ SANTAZILIA*

SARRERA¹

Pasa dira urte zenbait Fernando Maiora Mendia artaxoarrak *Reino de Navarra. Euskera: Injurias, coplas, frases* lana argitaratu zuenetik (2011)². Meritu handiko lana da, ez bakarrik berekin dakarren denbora eta sos kostu handia egileak bere bizkarrean hartu duelako, baita Nafarroaren historiari eta zehazki Nafarroako euskararen historiari egindako ekarpenagatik ere. Lanak ez du, ordea, gure ustean mereziko lukeen hedadurarik eta arretarik jaso oraindik.

Maioraren liburua batez ere Nafarroako Artxibo Orokorrean (NAO) gordetzen diren prozesuak, hots, epaiketek eragindako dokumentazio historikoa, irakurri eta irakurri ari izanaren emaria da. XVI. mendetik XIX. mendera

* UPNA/NUP, UPV/EHU.

¹ Lan hau UPV/EHUko Euskararen Historia eta Hizkuntzalaritza Historiko-Konparatua (GIC 10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatuaren barnean kokatzen da, Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropeoarrak eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen baitan. Eskerrak, orobat, La Caixa-k diruz hornitutako *Nafarroako ondare ez-materialaren Artxiboaren Katedrari* (30.31.10.3654). Ez nituzke eskerrak eman gabe atzendu nahi lan honen aurreko bertsioak irakurri eta iruzkindu dituzten Borja Ariztimuño, Iñaki Camino, Urtzi Reguero, Patxi Salaberri eta Koldo Ulibarri, baita Aziti Bihia elkarteare.

² Hemendik aurrera *M* deituko diogu liburuari.

bitarteko Nafarroako historia txikia biltzen dute prozesu horiek; herriz herri jendeak izandako gatazken lekukotza bikainak dira. Testuak gaztelaniaz idatzita egoten dira, eta hizkuntza horretan jaso ohi ziren lekukoek egindako deklarazioak, nahiz eta tarteka jatorrian euskaraz egin zituztela aipatzen zaigun. Oso bakan, dena den, eskribauek lekukoek hitzak zehatz-mehatz jaso nahi izan zituztenean, hitz, esaldi edo pasarte laburrak euskaraz transkribatu ziren. Prozesuen katalogazioan ez dago hizkuntzaren gaineko inongo zehaztapenik, beraz, euskarazko pasarte horiek prozesuak banaka eta pazientzia handiz irakurrita baizik ezin dira aurkitu, eta bilaketak gutxitan ziurta dezake arrakasta. Apaiz-lan temati horren emaitza da Maioraren liburua: XVI eta XIX. mendeen arteko Nafarroaren eremu zabaleko euskarazko testu zaharren bilduma bikaina.

Bereziki interesgarriak dira lekukotasun hauek, alde batetik, gaur egun euskararen lurraldetik landa dauden eremuetako testigantzak baitira: gehienetan, bertako euskara izan daitekeenaren lekukotasun historiko bakarrak dira. Testu batzuk euskararen garai historikoaren hatsarreetan daude kokaturik kronologiari so, XVI eta XVII. mendeen bueltan, baina bada beranduagokorik ere. Gainera, testuok toponimo eta antroponimo iturri bikainak dira, baina jaso den hizkera da batez ere interesgarria. Izan ere, present izan behar dugu hizkera literariotik urrun daudela liburuan jasotako pasarteak, oro har jendeak elkarri esandako hitz potoloak izaten baitira, eta frankotan nahiko giro iskanbilatsuan ekoitziak. Hori horrela, literatur-testuetan ikusten ez ditugun formak idoki daitezke testu hauetatik: arkaismoak, literaturan kausitzen ez diren berrikuntzak, adizki bereziak, hikako formak, ezohiko lexikoa, irainak, biraoak...

Arantzarik gabeko arrosarik ez baita, Maioraren liburuak eta bertan jasotako pasarteak ere badute itzalik. Liburuaren egileak ez du euskara menperatzen eta ez du hizkuntzaren historian eskarmenturik, ondorioz, traskribapenetan huts franko daude. Gisa berean, batzuetan ez dira prozesuak dituen euskarazko pasarte edo hitz guztiak jaso. Esan gabe doa liburuak ez duela, traskribapenetatik eta testuingururatzeko xume batetik haratago, inongo datuen analisi linguistikorik eskaintzen³. Hori gutxi balitz, autoreak ez du prozesuen erreferentzia baizik eman nahi izan, euskarazko pasarteak zein orrialdetan agertzen den aipatu gabe.

Gure ustean, aipatutako argudio hauek aski dira Maioraren liburuak eta bertan jasotakoek behar bezalako edizio eta analisi filologikoa ments dutela aditzera emateko, datuok ikerketarako baliatuko badira. Gure ustean hizkuntzaren aldetik interesgarrienak diren pasarteak hautatu ditugu lan honetan, eta iruzkin zein zuzenketa premia handiena zutenak. Irizpide kronologikoa ere kontuan izan dugu, eta testurik zaharrenak hautatu, euskararen periodizazioari so, garai arkaikoari edo gertukoari dagozkionak (cfr. Lakarra, 1997: § 7, Gorrochategui & Lakarra, 2001: § 7). Azterketarako jatorrizko iturrietara jo dugu beti, NAO-ra. Esan gabe doa, hemen jaso ez di-

³ Egileak liburuaren hitzaurreko lehen bi lerroak baizik ez dizkie eskaintzen lanaren nondik norako eta helburuei, eta pasarteak ulergaitza da, erredakzio arazo batzuk tarteko: «*El principal objetivo perseguido en el trabajo y permita [sic] ser un testimonio de provecho, si bien modesto, para el estudio del euskera de épocas pasadas*» (M 13).

tugun pasarteek ere arreta merezi dutela eta edizio egokiaren aiduru gelditzen direla.

Testuetan topatu ditugun arazoan artean, idazkera da bat. Eskuz idatzitako testuak dira, jakina, eta zenbaitetan lekukoak hitzeging ahala idatzitakoak, beraz, idazketa azkarrean eginak. Horrek edukiak behar bezala ulertzea oztopa dezake batzuetan. Horri lotuta, grafia, bereziki euskarazko zatietan, ez da beti sistematiko eta egonkorra.

Dialektologiaren ikuspegitik, ez da erraza testuek nongo euskara jasotzen duten zehatz-mehatz jakitea. Kontuan izan behar dugu jasotako pasarteak halakoren ahotik atera zirela, norbaitek entzun, entzuleak eskribauari kontatu eta honek papereratu zituela. Ez da arraroa ekoizle berberenak diren hitzak lekuko bakoitzaren edo idazkari bakoitzaren aitortzan desberdin jaso izana. Gure lanean hitzak nork esan zituen, nork entzun eta nork jaso zituen azaltzen saiatu gara, baita horiek denak nongotarrak izan zitezkeen azaltzen ere, posible izan den neurrian, testua geografikoki kokatu ahal izateko (*cf.* horrelako arazoez, Camino, 2009: 313 hh.)

Horrekin lotuta, euskarazko pasarteak behar bezala ulertzeko, agiria osotasunean begiratzea ezinbestekoa dela aldarrikatu nahi dugu. Ez du balio euskarazko hitzetara zuzenean jotzeak, gainontzekoari muzin eginda; edizio onak erdarazko testuari ere begiratu behar dio, hitzak testuinguru egokian kokatzeak ulermena errazten duelako, ekoizlea zein den jakiten laguntzen digulako, hitzen azalpenak edo erdal ordainak beste orrialdeetan ager daitezkeelako, eta behin baino gehiagotan, *M*-k jaso ez dituen euskarazko pasarte berri gehiago daudelako.

Azkenik, testuak finkatu ondoren analisi linguistikoa egiten saiatu gara, posible izan denean datu diakroniko eta dialektologikoak eskainiz. Gehienetan azterketatik kanpo utzi ditugu datu negatiboak analisisian⁴: gutxitan aurkituko du irakurleak «ez da agertzen» bezalakorik, batetik aztertutako pasartean ez agertzeak ezin baitu ziurtatu ez dagoenik (Camino, 2009: 317), eta bestalde, hizkeren ezaugarrien periodizazio egokirik ez dagoen bitartean –eta hori ez da beti posible–, ezin baitaiteke jakin euskal dialektologiak hizkera bat definitzeko darabiltzan ezaugarri guztiek lekukotasunaren garaian hor behar zutenetz (Camino, 2009: § 19.5).

1. PASARTEAK

Aztertutako prozesuak ordena kronologikoan eskaini ditugu, zaharreneatik berrienera. Izenburuetan prozesua zein herritan kokatu den eta zein urtean gertatu zen eman da lehenik⁵, eta parentesi artean *M*-n zein orrialde hartzen d(it)uen eta NAO-n dokumentua zein signaturapetan kausi daitekeen adierazi dugu. Pasarte bakoitza dagokion testuinguruan kokatzeko prozesutik bertatik ateratako datuak eman dira, beraz, aise jakin daiteke nork nori zer esan zion, eta zergatik. Euskarazko testu guztiak letra etzanetan eta

⁴ Caminorekin (2009: 392-393) bat gatoz berrikuntza negatiboek ere badutela hizkera bat sailkatzeko zeresanik. Hala ere, lan honetan jasotako testuetan datuak gutxiegi dira, ebidentzia negatiboez ondorio garbiak atera ahal izateko.

⁵ Prozesuak duen data eman dugu honakoetan, *M*-k egin duen bezala. Kontuan izan, dena dela, lekukoaren deklarazioak –eta beraz, lekukotasunak– lehenagokoak direla ezinbestean.

zenbaturik datoz eta ondoren, parentesi artean, prozesuan dagokion orria gehitu dugu, eta orriaren aurkian (a) edo ginberrean (g) bilatu behar den ere. Ondotik, hiru izartxoren bidez banaturik, hizkuntza azterketa heldu da.

Oharretan azalpenik eman gabe, euskarazko zein gaztelaniazko pasarteetan puntuazioa eta letra larrien erabilera gaurkotu dira, baita laburdurak hedatu ere, testuaren ulergarritasunaren mesedetan. Orobat egin da hitzen banaketarekin ere, hitzen elkarketak aldaketa fonologikorik eragin ez duenean, nahiz eta ez den beti erraza eskuizkribuan hitzak nola banatu diren asmatzea. Inoiz karaktererik gehitu behar izan bada, taketen artean egin da. Ohar paleografikoak oin-oharretan eman dira; gainera, eskuizkribuan (*E*) edo Maioraren irakurketan (*M*) erratarik aurkitu denean, zuzendu eta oin-oharretan eman da aldaketaren berri, errata non dagoen (*E* edota *M*) azalduz lehenik, eta letra etzanetan jatorrizko forma emanaz.

Oro har grafia paleografikoari eutsi diogu, salbuespen bakan batzuekin. <j> grafemak /i/ bokala adierazten duenean <i> eman dugu. Bestalde, <v> eta <u>-ren arteko txandaketan, lehena kontsonanterako gorde dugu eta bigarrena bokalerako. Ese luze guztiak ere <s> eman ditugu⁶.

Izen bereziak, landutako pasarteetatik at eman ditugunean, bateratu eta euskaldundu dira.

1.1. Lesaka-Goizueta, 1549 (M 42, NAO 65107)

Arano eta Goizuetako herriek arazoak konpontzeko epaitegietara jotzen zutenean, Joan de Ripa ohi zen Aranokoan bitarteko. Antza denez, amarruzalea zen Ripa. Behin batean, Migel de Alduntzin, Alduntzingo olagizonak, epaiketa izan zuen Goizuetaren kontra, mendi puska baten erabileraren inguruan. Ripa zen Alduntzinen bitartekoa eta, dirudienez, lekuko bat diruz erosi nahi izan zuen aitortza alda zezan eta, Alduntzinek epaiketa galduz gero, burdinola bat ez zedin gal. Prozesuan, beste gauza batzuen artean, erosketa hori frogatu nahi da.

Jasotako euskarazko hitzak Goizuetako biztanle Joan de Ripak esan zituen Lesakan, lekukoari tratua eskaini zionean. Epaietan Santxo de Iberoren parafraisiz ageri zaigu pasarte, Goizuetako biztanle hura ere. Honakoak dira hitzak, Martin de Zuntzarren idazkariak jasota:

(1) *suc ezindiro⁷ erran au ola baten es galceagatic⁸* (121g)⁹

* * *

Gure ustez galdera marka behar du perpausak, Ripa deklaratu beharrekoa esango zuen edo ez galdetzen ari zaiolako lekukoari; ea ola ez galtzeagatik ez ote zituen hitz horiek esango.

**iron* aditzaren lekukotasuna dugu hemen. Erro horren agerrera ekialdekotzat jo izan da, garai zaharretan *Etz*-ek, Leizarragak edo Oihenartek baitute. Bonapartek Zuberoara, Nafarroa Beherearen eta Lapurdiren zati batera,

⁶ Kontuan izan zenbaitetan eskuizkribuetako idazketa azkarrak ez diola irakurleari <v> / <u>, <j> / <i> edo <s> / <ʃ> grafemak ongi bereiztea errazten.

⁷ *M. ezin diro.*

⁸ *M. esgaldugatic.*

⁹ Prozesuan bertan dator hitzen itzulpena: *vos no diriays esto por no perder una erreria?* (121g).

Zaraitzura eta Erronkaribarrera mugatu zuen agerpena XIX. mendean (*apud* Padilla, 2013: 140). Uste horren kontra, Padillak handik eta hemendik hartu ditu erabileraren erreferentziak, eta Aezkoan edo 1609ko Iruñeko poesia sariketean (*TAV*, § 3.1.20: 65. lerroa) ere badirela erakutsi, eremua erruz zabal-tzeraino (*cf.*: orobat, Camino, 2003a: 448). Hartara, Padillak (2013: 141) **iron* aditzaren hedadura historikoa ekialde zabal osokotzat du, baina kanpo uzten du iparraldeko goi-nafarrera, hots, Goizueta beste zenbaiten artean. Joan de Ripa izan bazen hitzen ekoizlea, eta Ibero deituradun bat hitzok eskribauari errepikatu zizkiona, ez dezakegu bazter utzi Ripak edo Iberok abizentzat duten herrietan izatea sorlekua, eta beraz, hegoaldeko goi-nafarreraren eremuan.

Adizkiak formakara herskaria du sudurkariaren ondotik. Jatorri analogikoa izan dezakeela uste dugu, *zenduen*, *genduen*, Lizarraga Elkanokoaren *cindidan* edo Beriainen *cindizquioçun* bezalakoetan dugun horrek. Horrelako forma analogikoen adibiderik bada goi-nafarreraz **iron* erroko adizkietan ere, 1729ko predikuko *guindiro* adizkian (Ondarra, 1981), edo behe-nafarreraz, Lopezek dakarren *cindiro* forman kasu (*apud* Padilla, 2013: 144). Adizkiak berak ere badu zer aipa. *M*-k bezala, *ezin diro* irakurtzen badugu, hirugarren pertsonakoa litzateke subjektu komunztadura, eta *ez suc* izenordainak eskatzen duen bigarrenekoa. Prozesuan bertan heldu zaigun erdal itzulpena, «vos no diryais esto por no perder una erreria», aski argigarria da *M*-k ematen duen *ezin diro* baino, *ezindiro* irakurtzeko, alegia, *ez [z]indiro*–agian unitate prosodiko bakarrean, eta are afrikatuaren bidez, *etzindiro*–, komunztadura arazoa konpontzeko.

Muga are txikiagoak ditu gaur hemen lekukotzen zaigun eta segur aski aurreko mendeetan pandialektala izan zen *baten* objektu zuzenaren genitibo markak. Adibide bakan batzuk aipatze aldera, mendebalean Arrasateko Erreketan XVI. mendean (*TAV*, § 3.1.7: 23. lerroa) eta *RS*-n bada, eta Gipuzkoan, Tolosan 1619an *estu egongo aiz oen glosacen* (*TAV*, 127-128) irakur daiteke. XVIII. mendean *OA*-k *barcacioaren escatcea* (*OA*, 171) du eta Arantzazun *aurchoac ez du nai iñoren ecusi* antzeman dezakegu (*apud* Lakarra, 1982: 93, 1983: 58-60, 1996: 191-192). Ekialderago, Salaberrik (2000: 914) Iruñe inguruan bazela erakutsi du mapa batean eta Beran, beste batzuen artean, *onen bidalcera* dago XVII. mendean (Urrizola, 2006: 265); Doneztebeko testu batean ere ageri da XIX. mende erdialdera (Zubiri, 2014), eta Beintza-Labaienen ere bada adibide bakanik garai horretan berean (*cf.*: Lekaroz, 2015).

Arreta berezia eskatzen du *es galceagatic* egiturak. *-gatic* motibatiboaren amaiera herskaria bazter utzita, ezeztapenaren irakurketak azalpena behar du. Jatorrizkoan inork *cegalceagatic* irakur lezake eta mendebaldeko testu zaharretan aginteran eta subjuntiboan ageri zaigun ezeztapeneko *ze-* morfema bera dugula pentsatu. Besteak beste *Laz*-ek badu, Egiaren kantak (Urgell, 1996: 84. lerroa) Kapanagak eta Mikoletak ere bai (*apud* Azkue, 1935: 86) eta *BB*-n ere bada (156)¹⁰. Ahozkoan XIX. mendera arte iraun omen du ezaugarriak, Azkuek jaso zuenez (1969 [1923-1925]: 470-471), baina Ekialdeko lehen lekukotasuna litzateke. Gainera, interpretazio hori aski arazotsua dela frogatzen duten bestelako argudiorik ere bada. Faktore geografikoez landara, espero ez bezala, aditz izenarekin batera ageri da hemen, eta ez adizki

¹⁰ Mendebaleko adibide gehiago ikusteko *cf.*: Arejita (1983).

jokatueta¹¹. Gainera, Mitxelenak azaltzen du (*FHV*, § 21.11), aginterazko adizki trinko azentudun batekin baizik ez daitekeela **eze* jatorrizkoa *ze-* bila-ka (gaztigua, Koldo Ulibarri), eta hori ere hemengo adibidearen kontra doa. Grafia aski gardena da, eta errata izateko itxura gutxi du, baina gogora ekarri nahi genuke garai honetako eskuizkribuetan hitz amaierako <s>-ek <e> grafemaren antza har dezaketela, eta testu horretan bertan horren adibideak daudenez, bat gatoz *M*-rekin <s> behar dela irakurri, eta <e> grafemak <c>-rekin duen antza tinta faltari egotziko genioke.

Lexikoari so, gaurko ikuspegitik *erran* Lesakan arrotz ez bada ere, ez dugu egungo Goizuetan aurkituko¹². *Ola*, bestalde, orokorra da euskalki guztietan (*cf.* *OEH*, s. v. *ola*).

1.2. Eugi, 1565 (M 61, NAO 27586)

Zubiriko biztanle Joanes de Leitzza egurra mozten ibili zen mendian Anton de Antsorena beratarrarentzat. Leitzak zioenez, jornalaren parte bat zuen oraindik kobratzeko: Antsorenak, bistan dena, *bellaco* eta *traydor* deitzeaz gain, ez ziola deus zor. Leitzak bertatik ospa egin omen zuen istilua saihestu nahian eta Antsorenak atzetik jarraitu, ezpata eskuan. Lekukoren bat agertu baitzen, ez zen orduan giroa gehiago gaiztotu, baina beste egun batean, Leitzza Antsorenari berriz ere zorra pagatzeko eskatzera joanda, Antsorena bera, haren semea eta Migel de Ainoa (*Añoa* ere ageri da prozesuan zehar) delakoak, Leitzza besoetatik oratu omen zuten eta eraso, hiru labankada emanaz. Antsorenatarrek eta Ainoak beste ikuspegi bat eman zuten. Meza egun batez, Leitzza ezpata eskuan azaldu zen plazan, Antsorenari zor ziona eskatuz eta hitza betetzeko esanez. Liskarra sortu zen eta Joanes Antsorenak, aita defendatzen ari zela, Leitzaren labankada jaso zuen. Antsorenatarrek diotenez, Leitzak bere burua zauritu zuen liskarrean.

Ainoak, Eugiko biztanleak, Etxalatz idazkariari gertatutakoaren berri ematerakoan, Leitzak Antsorenari honako hitzak bota zizkiola esan zuen:

(2) *edujui nahi dituc heure hiçac*?¹³ (156a)¹⁴

* * *

Aski pasarte garbia da honakoa. Orduko testuetan ohi bezala, Linschmann-Aresti legea betetzen du *heure* izenordain indartuak. *Eduqui* da lekukotutako aldaera, hastapeneko *i-* gabe eta herskari ahoskabearekin, Nafarroako eremu zenbaitetan dagoen *edugi*-ren kontra. Lapurtera Klasikoaren barnean, Materrak eta Axularrek *edujui* darabilte, eta gerora *iduki* nagusitu zen (*cf.* *OEH*, s. v. *eduki*). Forma *i-*duna da goi-nafarreraz

¹¹ Ematen du Garibaik baduela *çetoa* bat, hots, *çe-* + *joan* 3. pertsonako orainaldiko forma trinkoa eta beraz, agintera eta subjuntibotik at, baina bat gatoz Lakarrarekin (1984: 156) errata behar dela izan: herskari ahoskabeak ez du azalbiderik, txistukariarekin kontaktuan ez bada, beraz *çetoa* behar du (*d* > *t* / *S*_) (*cf.* *FHV*, 349).

¹² Etxaidek (1989: 313), esaterako, *erran* jaso zuen Lesakan eta *esan* Goizuetan, duela mende erdi. 1825eko udal ordenantzetan ere *esan* dago Goizuetan (Satrustegi, 1996), eta baita 1753ko sermoi batean ere (gaztigua, Urtzi Reguero).

¹³ Prozesuan inolako markarik ez badu ere, gure ustean pasarteak galdera behar du izan.

¹⁴ «... *que quiere dezir: "quieres cumplir con lo que me tienes ofrescido" o "quieres cumplir tu palabra"*» (156a).

ohikoena, Beriainengandik hasita. Esanahiari so, ‘mantendu’ edo ‘atxiki’ da *OEH*-k ematen duen lehendabiziko adiera, baina hitza betetzearekin loturik Iparraldeko adibideak baizik ez dira ematen, eta Lapurtera Klasikokoak batak bat. Izenordain indartua eraikitze bidea *-em*-ren bidezkoa da, Beriainek, Materrak, Axularrek edo *Etx*-ek ere dagoeneko badarabiltena.

Baina dudarik gabe, <h> grafemaren erabilera zuhurra da testu honetan dei-garriena. Aspaldi esan zuen Mitxelena (*FHV*, 205-206) segur aski Nafarroa izan zela hasperena galtzen lehena, eta dudarik gabe, XVI. menderako galdua zela¹⁵. Hori horrela, testuetan kausitzen ditugun <h>-ak ez daitezke grafikotzat baizik har, eta ez ohi dira ageri modu sistematikoan hasperenari legokiokkeen tokian. Testu hau, baina, salbuespena da. Garai bertuko Esteribarko testuetan ere ez da hasperenik ageri: *cf.* hemen bertan Eugiko (§ 1.3) eta Larrasoñako (§ 1.5) adibideak; beraz, <h> hauek ere grafiko hustzat jo beharko genituzke, eta horien kokapen zehatza, hitz hasiera bokalikoa markatzearekin edo hiatuak markatzearekin lotu. Argudio honen alde dugu, Koldo Ulibarrik gaztigatu didanez, hasperena markatzen duten autore zaharrenetan izenordain indartuak ez ohi duela hasperenik eta *hire - eure* txandaketa egiten dutela (*FHV*, § 11.6)¹⁶.

1.3. Eugi, 1566 (M 62-63, NAO 27598)

Joanes eta Santxo Martikorena anaia eugitarrek Eugiko Domentxa de Girauten kontra jo zuten epaitegietan. Hainbat lekukok adulterotzat zuten Domentxa eta gainera, Martikorenatarren kontra laidoak egin izana leporatu zioten: igande batez, burdinola inguruan zebiltzala, Domentxak Santxo Martikorena behia jotzen ikusi zuela esan omen zien berarekin zihozazenei.

Beltran de Saigotsek Domentxari honakoa entzun zion, Martikorenaz mintzo:

(3) *joçen çuela* (4g)

Domentxak berak aitortu zuenez, bere ahotik hitzok atera ziren:

(4) *çaute*¹⁷ *apurcho bat biguelerat(?) ecen*¹⁸ *onec beyau*¹⁹ *jo nai*²⁰ *dic*²¹ (8a)²²

* * *

¹⁵ Halere, berriki Julen Manterolak nafarreraz XVII. mendean hasperenaren arrastorik egon zitekeela iradoki du (*apud* Reguero, 2015: 589-590).

¹⁶ Dena dela, bada beste aukera bat, bigarren mailakoa, nahi bada: pasarte honek, Esteribarkoa baino gehiago, Lapurdiko euskara islatzea. Hitz hauek Leitza delako batek bota zituen eta Etxalatzek jaso, baina ez zuzenean, Migel de Ainoaren bitartez baizik. Ainoa Eugiko biztanlea zen orduan, prozesuan aitortzen zaigunez, baina deiturak bestelako jatorria salatzen du. Izan liteke Migel de Ainoa ainhoarra? hala izatekotan, hasperenak azalpena luke, eta garaiko lapurteran *eduki* formaren aldaera eta erabilera semantikoa posible da, baita *heure* forma indartua ere. Pasartea laburra da, tamalez, hau behar bezala frogatu ahal izateko.

¹⁷ *E. caute.*

¹⁸ *E.* Pasarte iluna da, tinta orbanez, ezabaketez eta zuzenketez betea. <er> gainean idatzia dago, eta ematen du jatorrian *biguela* edo *biguel* idatzi zela. *M.* *biguel eretatecen.*

¹⁹ *M.* *beyan.* Baliteke *beyari* irakurri behar izatea, puntutxo bat ageri delako balizko <i>-aren gainean, baina puntu eta orban asko daude testuan lekuz kanpo eta <r> grafemen erkaketa bat eginda, lehen aukeraren alde lerratu gara.

²⁰ *M.* *jonac.*

²¹ *E.* *dic,* baina tinta orban batek ez du hitza ongi irakurtzen uzten. *M.* *dio.* Hemen ere, zalantzakoa da *dio* edo *dic* irakurri behar den. Lehenaren alde egingo bagenu, hobe genuke lehenago *beyari* irakurri.

²² Hor bertan ematen zaizkigu erdal ordainak: «*teneos atras quedos que este algo qui* (8a); *teneos un poco atras que este cabalgar quiere la baca*» (8a).

(3) eta (4)-k *jo* aditzaren adiera sexuala agertzen dute, urte batzuk lehenago Zufiko ezkontza fedean bezala (*TAV*, § 3.2.6). *Çaute* adizkiak *egon* aditzaren aginterazko forma plurala ematen du. Itzulpenak «teneos» dio eta zentzu horretan frankotan lekukotzen da *egon* aditza euskaraz, Beriainen testuetan adibidez, eta are gehiago aginterazko formetan.

Bigel forma metatesiduna, hemen lekukotzen dena, eremu murriztekoa da eta Nafarroan baizik ez lekukotua, guk dakigula (*cfr. OEH*, s. v. *gibel*). Horren aldaera metatesirik gabeak, aldiz, izan zukeen inoiz hedadura handiagorik: *cfr. RS-n Quibel eguioc ecachari*, edo *Jaizkibel* toponimo ezaguna.

Biguelerat ecen pasarte iluna da idazkeraren aldetik. Baliteke jatorrian idazkariak *biguela* idatzi izana, baina gero, hainbat zuzenketaren ondoren, gure ustean adlatiboaren aldaera herskariduna izan zen hobetsitakoa²³.

Zalantza osoki bazter uzterik izan ez badugu ere, *dic* alokutiboazko forma irakurri behar dela deritzogu, eta ez *dio*. Zuzen bagabiltza, *beyau* hobetsiko genuke *beyari* baino, eta itzulpenari erreparatuta *-la baca* eta ez *esta baca-*, aukera dago *-au* erakusletzat baino gehiago, lehen graduko artikulutzat jotzeko. Egia da *-au* batez ere mendebaldeko testuetan lekukotu ohi dela, eta *-or* ekialdekoetan²⁴, baina Mitxelenak (1979: 393) Lizarraga Elkanokoaren *escuáu* adibidea dakar eta gainera euskarak inoiz hiru graduko sistema osoa izan zuela proposatzea ez da zentzugabekeria (*cfr. Mitxelena*, 1979: 392 hh. eta Trask, 1997: 199)²⁵.

1.4. Ezkurra, 1569 (M 65-69, NAO 68142)

Prozesu hau hilketa baten ondorioz abiarazi zen. Elizan jartzeko tokien lehentasunak liskarra eragin zuen Ezkurrako elizan. Joan Martinez eta haren anaia, Ezkurrako jauregiko semeak, elizan haien kaparetasunari ustez zego-kion jarleku berezia okupatzera joan zirenean, han aurkitu zituzten Kristobal de Ezkurra, Lizartza eta Joanes Gaztearena. Martinezen anaia lekurik gabe geratu zen, hirukoteak ez ziolako lekua utzi nahi izan; hartara, Joan Martinezek aurre egin zien elizan eta tirabirak izan ziren. Gatazkak segida izan omen zuen meztatik landara, eta Joanes Gaztearena hilik gertatu zen bide bazter batean gero. Hainbat pasarte daude euskaraz lekukoan ahotan, eta ez dira denak nahi genukeen bezain gardenak.

Kristobal de Ezkurrak horrela izan zuen hilketaren berri, bi lekuko emakumezkoren ahotik, Sueskun eskribauak jaso duenez:

(5) *Joanes Gaztearena nor*²⁶ *baytec yl du!* (83a)

²³ Gaur egun posible da *-rat* Esteribarren eta Erroibarren, eta hurbiltze adlatibo zentzua du (Ibarra, 2000: 123).

²⁴ *cfr. Caminok* (2003b: 77) Aezkoan bildutako *batorrek* edo *bertzeorrek*.

²⁵ Caminok (2013: 109) ere Lapurdi eta Nafarroako ezaugarri zahartzat du.

²⁶ *E: norc*. Errata eskribauak berak zuzendu zuen. Ez daiteke guztiz baztertu, edonola ere, eskribauak edo lekukoak berak ergatibo markaren externalizazioarekin zalantzak eduki izana, eta *nork bait* bezalako formak posible izatea. *Etx-ek* badu adibiderik: *Norc vaytere eguyn deraut malicia handia* (XIII, 31). Edonola ere, hori eta bereiz idatzi izana *bait*-en izaera askearen erakusgarri izan liteke, eta horrela uztea erabaki dugu (*cfr. bait* honen gramatikalizazioaz, Lafon, 1999 [1966], Trask, 1997: 197-198 edo Etxepare, 2001). Hala ere, Mogelen *nortzuibait* bezalako zenbait forma (apud Etxepare, 2001), analogikoak –eta beraz ez oso zaharrak– ez ote diren gaude.

(6) *ay ene becataria!*²⁷ *Joanes Gaztearena nor baytec yl du!* (83a)²⁸

M-k liburuan jaso edo aipatu ez badu ere, Martinezek anaiarentzako to-
kia euskaraz galdegin zuela badakigu, baita horretarako zehatz-mehatz erabi-
li zituen hitzak ere, Kristobal de Ezkurak berak eman baitzuen pasartea:

(7) *ene anayari*²⁹ *bere asentutic lequ eguioçu* (81g)³⁰

Martin de Ezkurak, bestalde, meza entzuten ari zela, honakoak entzun
zituen elizan, gatazka piztu zenean³¹:

Joan Martinezek:

(8) *vada*³², *pagatuco didaçue* (96a)

eta Joanes Gaztearenak, gerora hilik gertatuko zenak, erantzun:

(9) *dessafliaçen*³³ *gaytuçu?* (96a)

Joan Martinezek, aldiz:

(10) *nic*³⁴ *es* (96a)

Jurdana de Ezkurra ere elizan zegoen egun hartan eta honako hitzak le-
poratu zizkion Joan Martinezzi:

(11) *bada, Joanes Gastearena eta Christoba*³⁵ *eta Liçarçaren semea, çuec*
*eguiten didaçu eta beguira euqueçu*³⁶ (94a)

Epaiketan, baina, honako hitzak entzun zituenetz berriz galdegin zitzaion
Jurdanari:

(12) *pagatuco deraudaçu*³⁷ (94g)³⁸

eta berak, dioenez, ez zuen entzun

(13) *pagatuco deraudaçu*³⁹ (94g),

ezpada:

(14) *çuec eguiten didaçu eta veguyra euqueçu*⁴⁰ (94g)

²⁷ M: *becatoria*.

²⁸ Kristobal de Ezkurak, beste deklarazio batean, hitzok nolabait errepikatu zituen, gaztelaniaz
oraingoan: «*Ay desdichada de mi! que mata [sic] a Joanes Gaztearena*» (21g).

²⁹ E: *anayarri*.

³⁰ eta erdal ordaina ere badator: «*y le dixo que le hiziese lugar a su hermano de su asiento*» (81g).

³¹ Martin de Ezkurak beste deklarazio batean erdaraz errepikatu zuen pasartea: «*se puso el dedo de la mano derecha en la frente deziendo "bosotros me pagareis"* y Joanes Gaztearena, defunto, le dixo «*desafiasnos*» y el dicho Joan Martinez le respondió «*yo no*»(42a).

³² Apur bat beherago, orrialde berean, berriz eman da pasartea, baina horretan *bada* dator.

³³ M: *desafiaçen*.

³⁴ E: *niç*. Ergatibozko marka da, eta ez dagokio ze hautsiririk, <c> hutsa baizik.

³⁵ E: hitz honek <y> du bukaeran, tatxaturik. Segur aski eskribauak hanka sartu zuen eta euska-
razko pasartea zela ahantzita, erdal juntagailua idatzi. Ondoren hura kendu eta *eta* idatzi zuen.

³⁶ M: *enqueçu*.

³⁷ M: *dezaudaçu*.

³⁸ hots, *pagarmelo eis* (94g).

³⁹ M: *decauçue*.

⁴⁰ M: *enqueçu*.

Migel de Ezkurra, saldistarra berau, elizan zegoen gatazka gertatu zenean. Haren inguruan zeuden hainbat herritarri honakoa entzun zien:

(15) *achequina*⁴¹ *çeagoc* (274a)

Amaitzeko, Maria Urdinek zalaparta entzun zuen elizatik ateratzean eta ezkilak jotzen entzun zituen:

(16) *ezquilac*, *ezquilac* (53a)

* * *

(6)-n zalantza egin liteke *M*-k bezala *becatoria* irakurri behar dugun, *be-katore* hitzetik, ala *becataria*. Lehena bagenu, hitzak *ea* > *ia* disimilazioa erakutsiko luke; fenomeno hori hedadura handikoa da (cfr. Hualde & Gaminde, 1998) eta dagoeneko *Etx*-ek badu, *amoria* edo *bercia* bezalakoa, baina ohartu bedi (11)-n *semea* dagoela, disimilaziorik gabe⁴².

Ene posesiboa dugu oraindik, bai (6)-ko egitura ihartuan, bai (7)-n eman kor. Azken honetan, gainera, Linschmann-Aresti legea betetzen dela garbi ikus daiteke, *ene* eta *bere* izenordainak erkatzen baditugu. Horrekin batera, «leku egin» egitura dugu, XVII. mendetik aurrera hedatu zena *OEH*-ren arabera (s. v. *leku egin*), eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Gipuzkoan, eta berrikiago Lizarraga Elkanokoarengan, mendebalean eta Zuberoan ere badena. Adibide honek erakusten duenez, XVI. mendean ere itxuraz bagenuen Nafarroan. Bi zentzu ditu, 'ospa egin' eta 'lekua utzi': bata ala bestea den, lehen zentzuak adlatibodun sintagmak hartu ohi ditu, eta datibodunak edo destinatibodunak, bigarrenak. Hemen, erdarazko itzulpenean bezala, biak ditugu: *asentutic* formak «ospa egin» interpretazioa bultzatzen du, baina forma datiboduna, *anayari*, ere badago. Testuinguruak lehen interpretazioaren alde egiten du, ez baitu ematen jarlekuaren ustezko jabea lekua partekatzeke prest zegokeenik.

(11)-n eta (14)-n *çuec eguiten didaçu* pasartean *egin* aditza ematen duenaren erabilera berezia dator. Testuinguruaren arabera, irudi luke aditz soilak «kalte egin» edo gisakoren bat behar duela adierazi⁴³, baina ez dugu *OEH*-n adiera hori bera erakusten duen adibiderik. Hitzen bat falta dela uste ez badugu, *egin* hori *ekin* aditzaren aldaeratzat har dezakegu, 'aurre egin, eraso' adiera ere hartzen baitu, baina horrek ere badu arazorik: batetik, *OEH*-k (s. v. *ekin*) ez du herskari ahostundun aldaerarik biltzen⁴⁴, eta bestetik, XVI. mendeko testuetan trinkoan baizik ez da lekukotzen aditz hau.

Orobat, *-zu* 2. persona markaren plural izaera zaharra atxiki du *didaçu* adizkiak, (14)-n berriz ageri denak, (12)-ko *deraudaçu* eta (11) eta (14)-ko *eu-queçu* adizkiekin batera. Ez bide gaude errata edo traskripzio huts baten aurrean: alde batetik adibide franko ditugu, baita errepikatuak ere; bestalde, *çuec* izenordainak ere pluraltasuna argi uzten digu, baita (12)-n itzulpenean

⁴¹ *M*: *achequi-na*.

⁴² Gaur egungo hizkeran ez du ematen Ezkurran *-ea* / > *-ia* dugunik, baina ez da zaila inguruko herrietan aurkitzea (Zelaieta, 2008: 101).

⁴³ Erdarazko pasarte batean hori iradoki dezakeenik badugu, Martinezen ahotan jarria: «*ya nos abeis echo lo posible*» (15g).

⁴⁴ Baina cfr. *FHV*, § 12.7, aditzetan erruz kausi daitezkeen ahostun / ahoskabe oposaketetarako.

dugun «eis» aditz pluralak ere. Horrelakoak, esaterako, *Laz*-en aurki ditzakegu (Kintana, 2004: 584), eta mendebal zabaleko tradizioan, Portalen poeman (*TAV*, § 3.1.21: 45 lerroa), Egiaren kantan (Urgell, 1996: 206 lerroa), *BB*-n edo 1648ko gipuzkerazko testu batean sistematikoki (*TAV*, § 3.2.13), besteak beste (cfr. Lakarra, 1996: 173-176)⁴⁵. Gainera, polimorfismoaren adibide ere bada pasarte hau. Alde batetik, *-zu* erako pluralak Jurdanaren ahotan (11 eta 14) eta galdeketa egiten duenarenean (12) ditugu eta *-zue* gisakoak, Jurdanak darabiltza behin (13), eta baita Joan Martinezek (8) ere. Horrekin batera, **eradun* erroko aditza galdeketa egileak erabiltzen du, eta Jurdanak hari emandako erantzunean; *-i(n)-* errokoak dira gainontzeko adibide guztiak. Horrelako txandaketak, dena dela, ez omen dira zailak aurkitzen, Reguerok (2015: 591-592) edo Mounolek (2011: 137-138) dioskutenez (cfr. honen historiaz Lakarra, 2011: 197-198).

(14)-ko *beguyra euqueçu* aditzari erreparatuz, aditz hori zabal lekukotuta dugu **edun* erroko adizkiekin, *kontuz ibili*-ren adierakide: *OEH*-k adibide franko dakartza (s. v. *begira edun*), euskalki eta garai askotan: 1609ko Iruñeko poemetan (*TAV*, § 3.1.20: 14. lerroa), *Laz*-en edo Etxeberri Ziburukoaren lanetan besteak beste. Adizki honetan, gainera, *-ke* dugu geroaldiko marka, mendebaleko testuetan (*RS*, *BB* eta *Laz*, esaterako) ugarria, baina lapurteran ere bai Etxeberri Ziburukoak eta Sarakoak ere baitakarte. Gipuzkeraz XVIII. mendeko dotrina batean *eiquezu* (*OA*, 14) garden bat ere badugu (cfr. adibide gehiago Azkue, 1935: 75 hh. eta Lakarra, 1996: 172 lanetan).

Ez da erraza Migel de Ezkurraren (15)-eko hitzei behar bezalako zentzua ematea. Batetik *çeagoc* adizkiak *-e-* du *-i-* espero genukeen tokian. Hiperzuzenketa bat izan daiteke, beti ere *ea* > *ia* disimilazioa orduko emanorra bazen (cfr. *supra*)⁴⁶.

Ilunagoa da, baina, *achequina* hitza, eta horrekin batera, *çeagoc* adizkiaren subjektua zein den asmatzea. *Atxiki* edo *izegi* 'piztu' aditzen aldaera izan daiteke. Bi aditzekin aurki ditzakegu amaiera sudurkaridunak, nahiz eta bakan diren. Axularrek *itxekin* du, adjetibo gisa, eskuzabala ez denarentzat eta *izegiren* forma kausatiboa, *irazegin* dakar *OEH*-k, baina gipuzkeraz baizik ez. Bestalde, prozesuan frankotan agertzen dira, alde batetik, Martinez haserre zegoela zioten auzokideak⁴⁷; beraz, zentzuari dagokionean, izekia edo haserre egotearen arteko lotura ez litzateke egiten oso gaitza. Aldiz, hitzaren formak *-a-* hasierak eta txistukari afrikatuak— gehiago bihurtzen gaitu *atxiki* hitzera, edo *OEH*-n jaso diren horren aldaeretara. Hala balitz, gure ustez, lekukoa jarlekuaz ari dela pentsatu beharko genuke, gordea edo okupatua dagoela, alegia. Honen aldeko argudioak ere aurki daitezke lekukoen deklarazioetan⁴⁸. Hirugarren aukera bat ere bada (gaztigua, Borja Ariztimuño eta Iñaki Camino), *atsegin* ulertzea hain zuzen. *OEH*-n (s. v. *atsegin*) esaten denez, *atsegin egon* lokuzioak zentzu ironikoa har dezake eta '*cualquiera le tose*' eta horrelakoen moduko adiera hartu. Nafarroan lekukoturik dago garai modernoetan, Aezkoan besteak beste. Bestalde <q>-ren irakurketa gardena izanik, <g> / <q>-ren arteko txandaketa proposatu beharko genuke, aski

⁴⁵ Bizirik bide zeuden horrelakoak XVIII. mendearen lehen erdiko Gipuzkoan, Gómezek (2015) berriki ezagutzera eman dituen orduko aditz taulek erakusten dutenez.

⁴⁶ <e> eta <i> grafemen arteko erratak ohikoak omen dira, dena dela (gaztigua, Koldo Ulibarri).

fenomeno ezaguna (cfr. *FHV*, § 12.7), hitz honetan orain artean leukoturik ez dagoen arren.

OEH-ren arabera *ezkila* XVII. mendetik euskal eremu osoan dago leukotua muturretan izan ezik, nahiz eta Bizkaian XIX. mendetik aurrera ere baden kausitzerik. Edonola ere, Nafarroako gaztelanian, eta euskaraz ere hala zatekeen, *esquila* erabiltzen da, baita Zaraitzu eta Erronkaribarren ere. Lekukotasun honek urte batzuk bederen aurrera dezake lehen agerraldiaren data.

1.5. Larrasoaña, 1579 (M 77-78, NAO 87969)

Maria de Agorretaren eta Portal delako uhartear baten ezkontza adostua zuten Agorretaren aitona eta Portalen aitak. Bitartean, Maria de Agorreta Martin de Garro larrasoaindarrarekin oheratzen zela esaten hasi ziren Agorretako eta inguruko zenbait biztanle, eta are gehiago, Agorreta eta Garro ezkontzeko hitzemanak zeudela⁴⁹. Horrek kalte egin zien Agorretaren ezkontza tratuei eta aitona salaketa jarri zuen irainengatik.

Larrasoñaiko biztanle Maria de Oses, «la vasca»⁵⁰, Maria eta Martinen arteko harreman ona frogatu nahian, gogora ekarri zuen nola Maria de Agorretak Martinekin ezkonduko zela esan zion behin. Agurtzerakoan, Osesek Larrasoñaiko bidea hartu baino lehen, Mariak honako mandatua eman zion Martinentzat, Diego de Oñatek jaso zuenez:

(17) *çar[r]eço Martini viar arrasean datorrela* (54a)⁵¹

* * *

Pasarte honetan, ezbairik gabe, *çarreço* aditzak merezi du arretarik handiena. *erran* aditzaren aginterazko trinkoa ematen du eta Nor-Nori sailean erabilia (Zu-Hari)⁵². Guk dakigula, *Laz*-en baizik ez da honen kidekorik aurkitzen ahal, Nor-Nori komunztaduran ere, baina datiboa lehen pertsona singularra dela: *çarrezt*.

Etorri aditzaren forma trinkoa, *datorrela*, aginterazko subjuntiboa da. *Erran* aditz nagusiaren menpeko osagarria da, nahiz eta ez duen horrekin komunztadurarik ageri. Egon liteke *datorreala* irakur lezakeenik, nahiz eta gure ustez balizko <a> hori tinta orban bat den, eta menderagailua *-ela* huts. *-ala* bagenu, ez legokiokkeen *-e-* bat leukake aurretik⁵³. Tinta orbana izan gabe,

⁴⁷ «*estando muy ayrado y demudado*» (7a); «*con colera*» (19g); «*estaba descontento*» (274a)...

⁴⁸ «... *que el dicho Miguel de Ezcurra se asentase en otro banco pues aquel tenían ocupado*» (7a); «*los vecinos de dicho lugar se alborotaron y dijeron todos a una voz al dicho Lizarza que no le biziese lugar [bankuan] al dicho bastardo*» (28a)...

⁴⁹ Garai honetan, elizan ezkondu gabe egonik ere, hitz hutsa aski zen konpromisoa irmoa izan zedin.

⁵⁰ Horrek, Oses deiturarekin batera, jatorria Nafarroa Beherean izan zezakeela iradokitzen du.

⁵¹ Horrela erdaratu zuten prozesuan: «... *le dixo la dicha Maria de Agorreta a esta deposante [Maria de Oses] que le diese sus encomiendas al dicho Martin de Larrasoayna y que le dixiese que al otro día a la noche no dexase de yr...*» (54a).

⁵² Trask (1997) eta Lakarra (2008) zuzen badaude eta *erran* baldin bada *esan* aditzaren forma arazlea (*<*e-ra-san*>, *-ra-* horrek berak bilakatuko luke aditza iragankor (cfr. Ariztimuño, 2013b: 382, 394) eta nolabaiteko objektuarekiko komunztadura agertu.

⁵³ Ez bedi nahas hori *doeala* bezalako mendebeleko formekin, *-ea-* bilkura hemen ezinezkoa den disimilazio baten ondorio baita (*doa* + *-ala* > **doala* > *doeala*).

errata balitz, *-ala / -ela* txandaketa balizko baten arrastoa ere isla lezake (cfr: honetaz Ariztimuño, 2013a: 54-56).

1.6. Urrotz, 1588⁵⁴ (M 80-81, NAO 99059)

Hernaut de Villanueva Urrozko biztanleak herriko baratzeak zaintzeko ardura zuen, udalak lan horretarako hautaturik. Urrozko Santxo de Ezpotz kexatzera joan zitzaion Villanuevari bere eremuan zituen fruta-arbola batzuetako kimuak norbaitek apurtu zituela esanez. Villanueva harekin bertaratu zen arboletara eta bere ustean ongi zeudela esan. Eztabaidan hasi ziren eta lekuko batzuen hurbiltasunak saihestu zuen orduan Ezpotzek Villanueva jipoitzea, baina arratsaldean berriz elkartu eta eztabaidaren ondorioz salatuak kolpea eman zion zaintzaileari, konorterik gabe lurrean uzterainokoa.

Egunak joan ziren eta Villanueva lagun batekin Urrozko zubian zegoela, Ezpotz agertu zen bertan idi eta morroia lagun, eta baratzezain lana hobeki egin behar zuela leporatu zion beste behin, baita hurrengo urtean ez zuela lana atxikiko mehatxatu ere. Villanuevak ihardetsi, beharrezkoa zenean egi-ten zuela lan. Espozek berriz, nahiago zuela zaplasteko bat jaso, lana egin baino. Zaintzaileak orduan, hitz horiek esanez egindakoaren ardura aitortzen ari zela leporatu zion Ezpotzi, eta kexatuko zela. Ezpotzek ondorioz, honakoa esan omen zion Villanuevari, Juan de Elkanok Juan de Arraiotz eskribauari deklaratu zionaren arabera:

(18) *guyçona char duc, buffeta bat⁵⁵ emanagatic quexassen⁵⁶ den ha* (62g)⁵⁷

Maria de Orotzek Arraiotz eskribauari kontatu zionez, Villanueva zubian zegoela, beste batzuekin ari zen hizketan eta Ezpotz idiarekin eta morroiarekin ailegatu zenean, zaintzailea xaxatzen hasi zen. Villanuevak orduan, Ezpotzi iraina bota zion:

(19) *galduroz* (75a)⁵⁸

Bestalde, *M*-k euskarazkotzat ditu Joanes de Lizarragak Arraiotz eskribauari egindako kontaketan erabilitako pasarte honen azken bi hitzak, kamuxetan egindako txerto hautsiez mintzo:

(20) *ynchertos⁵⁹ de camuesas o de camues hobi(?)* (64a)

Azken hitzak oso irakurketa zaila du eta hemen jaso badugu ere, ezin dugu ziurtatu, ez *M*-k ongi eman duen, ez euskarazkoa den: ez dugu garbi zein euskal hitzekin lot daitekeen hura edo zein hitz legokiokeen pasarteari.

* * *

(18)-ko lekukotasunean begira diezaiogun lehenik sintaxiari. Zinez bitxia da erlatiboazko egitura hau. Gaztelaniazko itzulpenarekin erkatuta eta lekukotasun zahar frankotan bezala, erlatiboak eskuin jarrita, horrelako egitura bat

⁵⁴ *M*-k 1582ko datarekin ematen du prozesu hau, baina 1588koa da argi eta garbi.

⁵⁵ Zerbait dago *-t* ren ondotik, tatxatuta.

⁵⁶ Ematen du <x> -en azpian <ss> zegoela jatorrian.

⁵⁷ «... que quiere dezir ruyñ es el hombre que por un boffeton que le dan se quexa...» (62g).

⁵⁸ «... que quiere dezir tanto como "perdido"...» (75a).

⁵⁹ *M*: *yncharte*.

espero genezake nafarreraz ere (Camino, 2003a: 448): *char duc guyçon buffeta bat emanagatic quexassen den ha*⁶⁰. Aukerarik bideragarriena erlatibozkoa aposiziotzat jotzea da, baina hori ez letorke bat erdal ordainarekin: *guyçona char duc, buffeta bat emanagatic quexassen den ha*. Edonola ere, ez litzateke harrizkoa *char* atributua artikulugabe agertzea. Artikuluak, bere sorreratik eta urteek aurrera egin ahala, testuinguru gehiago eta gehiago bereganatu izan ditu, baita garai historikoetan ere (Mitxelena 1978, Santazilia, 2010). Mitxelenak (1978: 213) azaldu zuen bezala, atributua adjektibo hutsa izateak, izenik gabea, artikulurik eza ahalbidetzen du ekialdean⁶¹. Azkenik, errata baten aurrean ere egon gintezke eta *guyçon charra* zuzen genezake.

Horrezaz gain, *ha* dugu erlatibozko perpausaren mugatzaile. Hirugarren graduko erakuslea artikulua bilakatze horretan tarteko fase bat isla lezake honen. <h>-a grafiko hutsa dela –eta ez hasperena– onartuta⁶², eskribauak erlatibozko menderagailuaren eta mugatzailearen artean nolabaiteko eten morfologikoa bazela islatzeko erabilia zatekeen.

Bestalde, *-agatic* egiturak balio kausala du hemen. Gaur egun funtzio kontzesiboa du egitura honek, baina adibide honetan aditz izena baliatu beharrean partizipioa ageri zaigu aspektu burutua markatzeko. *Sareko Euskal Gramatikak* (s. v. *Kausa perpaus jokatu gabeak*) hedadura berrikotzat du kontzesiboa balio kausalerako baliatzea, baina hara kontradibide zahar bat, aditz izena edo partizipioa erabiltzea hurrenez hurren adiera kontzesibo edo kausala bereiztearekin baino, ekintzaren aspektuarekin zegoela lotua agertzen duena.

Hiztegiari dagokionean, *buffeta* Larramendik lapurtartzat du (cfr. *OEH*, s. v. *bufeta*); ez da, haatik, testu lapurtarra hau. (19)-ko *galduroz* ez da ulertzen erraza. Adierari begira, *galdu* formarekin lotua egon liteke. Ez genuke eskua sutan jarriko, baina hitz elkartu bat bada, bigarren elementuak *hotz* hitzaren adiera bigarrenkari batekin izan lezake zerikusirik: *OEH*-k laugarren postuan dakarren zentzuan, *huts*-en sinonimoa ere bada. Ikus *OEH*-tik bertatik grafia gaurkotuan ateratako adibide pare hau, adieraren hedaduraren erakusgarri; Añibarrok dio *ezer balio eztau «biurtuko dot» otz batek, sekula biurtzen ezpada* eta Zerbitzarik *haur hotza zen Arce lehen partida herritik kanpo jokatu zuelarik*. Adibide gardenenak ez dira zaharregiak, dena dela⁶³. Bestalde, *-r-* epentetikotzat jo beharko genuke, eta hori ez da merkeegia⁶⁴.

⁶⁰ Hori arkaismo bat denetz, ordea, zalantzan jar daiteke (gaztigua, Dorota Krajewska).

⁶¹ Manterolak (2012) Nafarroa Beherean jasotako datu garaikideetan atributua ezin da artikulurik gabe agertu subjektuak erreferentzialitate handia duenean (cfr. [*Jestu horren egitea*]_S ez da [*pollit-Ø*]_{Attr} vs [*Ume hori*]_S ez da [*pollit-al **Ø*]_{Attr}). Gure adibidean subjektua erreferentzialitate handikoa baita, Manterolak lekukotutako egoeraren aurrekoa islatuko litzateke, hots, erreferentzialitate handiko izenekin ere artikulurik gabeko mugatzailea onartzen zenekoa.

⁶² Mitxelenaren ustez (*FHV*, 205-206) Nafarroa izan zen, hain zuzen ere, Erdi Aroan hasperena galdu zuen lehen eremuatarik, eta ez dugu 1588an lekukotzerik espero, jakina. Honi buruz, cfr. orain Reguero (2013: 433-434) eta § 1.2-n esandakoa.

⁶³ *OEH*-k dioenez «*Lur hotzean etzatea, coucher sur la terre nue*» dakar Duvoisinekin. Hori horrela, *OEH*-k jaso ez badu ere, baliteke Milia Lasturkoaren eresian (*TAV*, § 3.1.5: 5. lerroa) dagoen *lur oça* ere adiera horretan baliatu izana, eta horrek adieraren aitzinatasunaren alde eginen luke.

1.7. Olatz-Txipi, 1596 (M 98, NAO 199822)

Herriko sakristau ohiak, Joanes de Olatzek, kargua galdu berri zuen, apaizak haren ordeaz beste bat izendatu zuelako egun hartan. Katelina de Redinek, mezaren ondotik etxera zihoala, Joanes de Olatz zuen atzetik eta Martin Fernandez de Mendibil eskribauak jaso zuenez, honakoa entzun zion, apaizari edo beste inori zuzendua zen jakin gabe:

(21) *bada ni elbanenquio Alsusaten, Olazeneco mutilcoa baze lagunic ez luela, nic⁶⁵ jaquinen [n]uque⁶⁶ cer eguin (4g)⁶⁷*

* * *

Heldu aditzaren adiera aski berezia dugu hemen. Iragangaitz eta datiboduna izateaz gain, *OEH*-k Iparraldeko autoreengan lekukotzen duen ‘Encontrar(se), hallar(se); coincidir, juntar(se), reunir(se)’ adierarekin egiten du bat, eta adibide honek iraganean adiera hori zabalduago egon litekeela iradokitzen du. Ematen du *heldu* aditzak ekialde zabalean hartu duen ‘etorri’ adierarekin ere lot daitekeela, baina aspektu puntuaritik at, oro har ez-burutua den forma batean erabilia⁶⁸.

Mutilko da, *OEH*-ren arabera (s. v. *mutiko*), XIX. mendera arte formarik ohikoena.

Baze, sudurkaririk gabe, hegoaldeko testuetako forma da, baina mendebaleragokoa *OEH*-ren aburuz⁶⁹. Ez dugu, ordea, *-i* gabeko formarik kausitu inon, horren eraginez bustitako *-x*-dun mendebaleko aldaerak bazter utzita, jakina.

Gainera, baldintza egiteko [aditz oina + *ba-* + **edin*] egitura darabil. Egun ekialdeko euskalkietara mugatua egon arren, orokorra izan da noizbait, mendebalean ere kausitzerik izan baita XX. mendera arte, Azkueren esanetan (1935: 58). Salaberrik (2000: 907) Iruñe ingurukotzat ere badu.

Luela adizkiaren irakurketa gardena da, eta ez dago hastapeneko albokaria herskari edo txistukari batekin nahasterik. Hori horrela, zilegi bekigu gogora ekartzea garai arkaikoko testuek, *Laz*-ek, Leizarragak, Ibarгүйen-Cachopinek edo *Etx*-ek kasu, badutela *fase sparitan l* morfema zentzu hipotetikotik at aurkitzeko aukera, iragan inperfektiboko marka gisa menpeko perpausetako adizkietan (*cf.* honetaz Lafon, 1999 [1956] eta Aldai, 2000, 2008)⁷⁰.

Amaitzeko *jaquinen nuque* aldatu dugu. Gure ustean, inon lekukoturik gabeko asimilazio urrun bat ez bada bederen, *-i* hori erratatatzat baizik ez daiteke har.

⁶⁴ Patxi Salaberrik iradoki digunez, Galdurotz herria ez dago Urrozitik urrunegi, eta denendako ezaguna izanik, hitz joko modukoa izan zitekeen, *galdu* eta herriaren izena batuz.

⁶⁵ *E*: *niss* dator, eta <ss> estaliz <c> zuzendu da.

⁶⁶ *E*, *M*: *jaquinenique*.

⁶⁷ Horrela itzulia dator prozesuan: «*que si lo topaba en Alsusate solo, sin otra compañía sino el mo-chacho de los de casa de Olaz, quel sabria que azer...*» (4g).

⁶⁸ Hala ere, *heldu*-ren erabilera horrek berrikuntza berantiar samarra dirudi, Caminok (2013: 126) emandako adibideei so.

⁶⁹ XVIII. mende hastapeneko *OA*-n esaterako, polimorfismoa da nagusi: *baicican*, *baicen*, *baicic* eta *baice* lekukotzen dira, azken bien adibide bana baino ez badakar ere (Altuna, 1992: 583).

⁷⁰ Nafarroan, Beriainen lanetan ere bada alerik (gaztigua, Urtzi Reguero).

1.8. Puiu, 1596 (M 95-96, NAO 212985)

Martin de Alzorritzek Joanes de Espartzari etxe bat utzi zion alokairuan. Desadostasun ekonomikoek eztabaidara eramán zituzten bi puiuarrak. Norgehiagokaren beroan, labankada bat eman zion Martinek Joanesi, eta larri zauritu.

Maizterrak, eztabaidan, honako hitzak esan omen zizkion Martini, herriko lekuko batek aditu zuenez:

(22) *heure bician estuc⁷¹ trataçen falçuquerietan⁷² bayce* (6a)

Pedro Martinez de Betolatza soldadu zebilen garai horretan Puiun. Eztabaidaren lekuko izan zen, baina ezin izan zituen hitzak garbi aditu, urrun zegoelako. Badaki, halere, Joanesek hitz hau esan ziola Martini:

(23) *falsoa* (8a)

eta Martin de Alzorritzek erantzun, code-switching garbian:

(24) *mas falsoa soys vos* (8a)

Aurrerago, idazkariak hitzak errepikatu zituen, *M*-k liburuan jaso ez baditu ere⁷³:

(25) *El dicho Esparça le dijo al dicho acusado «falso falsoa» y el dicho acusado le respondio «mas falsoa soys vos»* (11a, g)

* * *

Testuak ez du berebiziko zailtasunik, baina *M*-ren irakurketak emendakirik behar duela iritzi diogu, irakurketa okerrak datuen interpretazio dialektologikoan hanka sartzeko aukera ematen baitu. Testua Ricardo Urrizolak (2007: 300-301) ere eman zuen ezagutzera, faksimile eta guzti, eta bat gatoz hark dakarren traskribapenarekin.

Horrezaz gain, aipatzeko dugu *heure* izenordain indartua Linschmann-Aresti arauarekin bat datorrela. Bestalde, *bayce* aldaera darabil (*cf.* Olatz-Txipiko *baze* ere, § 1.7-n). *OEH*-ren arabera (s. v. *baizen*), «*Las formas sin -n se documentan en textos meridionales antiguos: baize en un texto alavés del s. XVI, en Lazarraga, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama*» eta XVIII. mendeko *OA* ere gehitu daiteke (Altuna, 1992: 583), azken honetan beste forma batzuk ere kausi badaitezke ere. Txistukari afrikatu bizkarkari zein apikarirako <ç> grafema bera erabili dela ondoriozta dezakegu, *trataçen* eta *falçuquerietan* adibideak erkatuz gero.

1.9. Otsagabia, 1598 (M 102-105, NAO 12831)

Antza denez mugaz haraindikoek abereak lapurtzen zizkieten zaraitzuar eta aetzei: besteak beste, Arnau Ategorirri behi bat, Martin Landa Abaurrekoari hiru idi eta behi bat, eta Hiriberriko batzuei hiru behi ebatsi

⁷¹ *M*: *estue*.

⁷² *M*: *falçu queiaetan*.

⁷³ Inigo de Beruete auzokideak ere entzun bide zituen hitzok, baina gaztelanaiz baizik ez zituen eman deklarazioan: «*que le dixo el dicho esparça al dicho Alçorritz que hera un falso, y el dicho Alçorritz le respondio que hera el mas falso*» (7a).

zizkieten. Joanes de Igali bi behi kendu zizkieten eta semea bidali haien peskizan, Petilli Bidart Larrañen lagun hartuta. Barkoxen antzeman zituen bi behien larruak, bertan Gixontoa izenekoak erosi eta hil baitzituen. Pedro de Cisari hiru idi kendu zizkieten eta haren seme Bartolomek ere Zuberoara jo zuen haien bila. Arhaneko Agerrek han ez zituela aurkituko eta Larrañera jozteko esan zion. Otsagabi inguruan ziotenez, Arbide, Petri Barber «Antxot», eta Peirot ziren lapurtzen aritzen ziren zuberotarrak: fama hori zuten, bederen. Palacios lizentziatuari ere lapurtu omen zioten idirik. Egun horietan Pedro de Itzaltzu zaraitzuar zangozaratua bere sorterrira itzulia zen, Otsagabira, eta Palaciosek susmoa zuen bazukeela, beste lapurrekin batera akaso, desagertze horretan zerikusirik. Gainera, Palaciosek eta Itzaltzuk izanak zituzten lehendik ere zenbait tirabira, aztore batzuen hazkuntza zela eta.

Antzeman daitekeenez, prozesua luzea da. Alde batetik zenbat lapurreta gertatu ziren, non eta nori eginak, ikertu beharra zen; bestetik, ustezko lapurrek egiazki hala ziren frogatu beharra zen; bestalde, Itzaltzuren partehartzea argitzeko zegoen, eta azkenik, gerora ikusiko dugun bezala, Landa Otsagabiko alkateak bere lana ongi egin zuenetz zalantzan jarri zen.

Itzaltzuk eta Palaciosek aurretik gatazka zutela frogatzeko, Pedro de Cisa otsagabiarrak, Materrai ere deituak, behin Pedro de Itzaltzuren etxean, Zangozan, Palaciosen kontra hau entzun ziola kontatu zion Huarte eskribauari:

(26) *Yratiko oyanean nic arr balin baneça eta bioc bayçi espaguina, licençiatu Palacios eta ny,⁷⁴ nic eracuchico nuen,⁷⁵ nondic gin sen⁷⁶, ysusquia(?)⁷⁷ eta nic ylarrozaldi bat emanen nioque bellaco çarrari (32a)⁷⁸*

eta apur bat aurrerago:

(27) *Yratiko eremuan arrbadeçat, nic eracuchico diot ychusquiaren⁷⁹ bearria (32a)*

Lapurrak zein izan zitezkeen ikertzen ari zirenean, Joanes de Izal otsagabiarrari Huarte eskribauak deklarazioa hartu zion. Izal ardiak zaintzen ari zen Orhin eta hiru pertsona ikusi zituen, oso ongi ezagutu ezin izan zituenak, nahiz eta Pirinioen bestaldekotzat zituen. Beste bi mutil ere han zebiltzan artzain Lope Bidondoren ardiak zaintzen eta ardi bat ostu zieten hiru lapurrek. Joanes de Izalek horietako batekin hitzegin omen zuen, eta agurtzean hau esan zion lapurrak, trufaka hain segur:

(28) *goraynçi Bidondoren arzayari (53a)*

Prozesuaz arduratu zirenek Iñigo Landa Otsagabiko alkateari hainbat ikerketa egiteko enkargua egin zioten, baita behar orduan gaizkileak atxilotzekoa ere. Ematen du, dena dela, alkateak ez zuela ikerketa sakon eta behar

⁷⁴ *licençiatu Palacios eta ny* lerroaren gainean gehitu da.

⁷⁵ <uen> beste zerbaiten gainean idatzia dago, hots, zuzenketa da: *nio...* akaso?

⁷⁶ *M: gisen*. Baliteke M-ren irakurketa ere zuzena izatea.

⁷⁷ *M: ysusquia*. Ez dago garbi <g> edo <s> den. Baliteke E-k ere errata egin izana eta <g> idatzi izana. Agian *isuski* hitza ez zen eskribauaren euskararen erabiltzen?

⁷⁸ Zenbatze akats batengatik, bi aldiz dago 32. folioa. Lehenari dagozkio pasarteak.

⁷⁹ *M: ychusquiaren*.

bezalakoa egiteko batere asmorik, eta galdeketak azaletik, arin eta kalean bertan egin zituela. Datozen bi lekukotasunak alkatea zigortzeko baliatu ziren prozesuan⁸⁰.

Pedro de Cisak Huarte eskribauari aitortu zionez, Landa Alkateak Itzaltzu lapurra zen ala ez bazekienetz galdegin zion. Cisak erantzun, berari ez ziola ezer ebatsi baina Itzaltzu lapur faman zela aditzea bazuela. Alkateak, ematen duenez, ez zuen askoz gehiago jakin nahi izan, eta hitz hauekin bidali zuen Cisa:

(29) *ençuna*⁸¹ *baycic espadaquic*⁸², *ori estuc deuçere*⁸³, *eta goaye(?)*⁸⁴, *Jayncoa lagun daquiala* (35a)

M-k pasarte hau jaso ez badu ere, Pedro de Cisari bezala, Landa Alkateak Maria Espartzi ere galdetu zion ea bazekien Palaciosen aberea nork ebatsi zuen. Espartzek ere ezetz, eta Landak horrela erantzun zion, Espartzek berak Huarteri kontatu zionaren arabera:

(30) *compon bite, Maria*⁸⁵, *nombayt ilquico duçu, baldinba* (39a)⁸⁶

Prozesuetan ohikoa da deklarazioaren amaieran aurretik egindako ezabaketan eta lerroen gainean egindako gehiketen laburpena ematea, testuaren ulertzea errazte aldera. (30)-en lehen zatia gerora gainidatzirik dagoenez, berriaz errepikatu da amaieran:

(31) *compon bite, Maria* (39a)

Amaitzeko, Huartek Palaciosen itzain Joaniko de Beorlegiri egindako galdeketan, ardi batzuez mintzo, hau jaso da:

(32) *en los nerbios del muslo, que llama este testigo «ysterçain»* (49a)

Horrelako lexikoaz landara, prozesua bereziki aberatsa da onomastikari dagokionean. Askok dira Pirinioaz bi aldeetako toponimo eta antroponimoak, azken hauek usu lehenetan oinarrituak, baita horiei dagozkien bustidurak, txikigarriak, ezizenak eta beste. Ageri diren deitura asko oraindik ere ohikoak dira eskualdean. Zilegi bekigu aski modu nahasi eta asistematikoan eta han hemenka jasotako adibide zenbait lan honen hondarrean zerrendatzea (cfr. I. Eranskina), horrek merezi lukeen azterketa onomastiko sakona egiteko inori kuraia emanen diolakoan. Zerrendan grafia atxiki dugu, baina letra larriak eta puntuazioa gaurkotu.

* * *

⁸⁰ Huartek Landarekin gertatutakoaren berri ematen du testu batean: «[Landa] *andubo descubriendo en secreto [...] entre los testigos nombrados, [...] diciendoles si savian nada del negocio del licenciado Palasçios, y que ellos le respondieron que si, y que le declararon lo que ante mi, el dicho receptor [Huarte], an declarado y que les dixo que si no savian mas que aquello y otras cosas contadas en la informacion, se fuesen con Dios, y que les dexo de examinar, [...] contraveniendo a lo que se le demando*» (65g).

⁸¹ *M: encuna.*

⁸² *M: espadaquic.*

⁸³ *M: denare.*

⁸⁴ Hitza ez da batere gardena, eta *M* ere ez da traskribapena ematera benturatu. Erdal itzulpenak, ordea, egin lezake halako forma baten alde (cfr. 80. eta 86. oin-oharrak).

⁸⁵ *compon bite, Maria* zatia *nombayt ilquico duçu* pasartearen gainean dator idatzia.

⁸⁶ «... y que si no sabia nada de lo que la [sic] pregunto, se fuera con Dios» (39a).

(26) eta (27) ez dira pasarte argiak eta beraz, har bedi hemen eskainiko dugun irakurketa proposamen huts gisa. *M*-k *ygusqui* irakurtzen du bietan, baina gure ustez (27)-n *ychusqui* garbia da eta (26)-n *ygusqui* interpreta badaiteke ere, <s>-duna ere posible da, eta semantikaren aldetik onargarriagoa. Zuzen bagabiltza, beraz, *isuski* edo *itsuski* ulertu behar da, hots, 'erratza' (cfr. *OEH*, s. v. *isuski*). Hori horrela, (27)-ko *bearria* ez da gorputz atala, erratzaren makila baizik (cfr. *OEH*, s. v. *belarri*, 2. adieran): hitza mendebalean lekukotzen bada ere, zubereraz ere ageri da⁸⁷. *Erakutsi* dugu *ikusi* aditzaren forma arazlea eta testuinguru honetan *OEH*-k (s. v. *erakutsi*) jasotzen duen 'sofriorazi'-ren kideko adiera geneukake hemen: Itzaltzuk Palaciosi isuskia sofrioraziko lioke, beraz. Interpretazio zuzena egin baldin badugu, *nondic gin sen* aposiziotzat jotzea da hoberena, eta *sen* adizkian *-en* menderagailua dugula onartuta, «datorren lekutik datorrela» bezalako zerbait uler genezake, ez ordea, duda-mударik gabe.

Lexiko eta aldaerei behatuta, *oyan* dugu, ekialde zabaleko hitza, baina inoiz hedadura zabalagoa ere izan duena: cfr. *RS 338*, *Oshoa senar daguianac veti ojanera beguira*. *Jin* aditza <g>-z idatzi da: ez du ematen beranduago Zaraitzun ageri den ahoskera sabaikaria islatzen duenik. Irainaren hanpatzaille, *çar* dugu hemen, *M*-n eta Nafarroan oro har, zabal lekukoturik ageri dena (cfr. Salaberri & Zubiri, 2007: § 3.35). *Artzai* dator, *OEH*-k (s. v. *artzain*) Zaraitzu eta Zuberoa forma sudurkaridunen eremuan sartzen badu ere⁸⁸. *Deuçere*-k, <ç> grafemarekin, apika txistukariaren ahoskera ahostuna iradoki dezake, egun Zuberoan kausitzen duguna (cfr. *FHV*, 280). Antzeko zerbait gertatzen da *ilki* aldaerarekin, izan ere *OEH*-k *elki* du zaraitzuartzat, eta *ilki* mendebaleragoko aldaeratzat. *Ysterçain*, ordea, izan liteke zaraitzuarra *OEH*-ri so (s. v. *iztazain*). *Ylarrozaldi* forman *inarrosi* ulertu behar dugu, eta 'astindu'-ren esanahia du. *OEH*-k (s. v. *inarrosi*) ez du batera <l> eta <z>-dun aldaerarik jasotzen, baina bai bakoitza bere kasa: <l>-z eraturikoak ohikoak dira goi-nafarreraz, baina *OEH*-k <d>-dunak ditu zaraitzuartzat, eta txistukari bizkarkaria *Pouvreaux dakar* aditz izenean (*-ztea*). *Baizi*, herskaririk gabe, erraz aurki daiteke ekialdeko testuetan, Zuberoan bereziki, usu amaierako herskaridun aldaerarekin lehian (cfr. *OEH*, s. v. *baizik*). *OEH*-k Zaraitzuketzat eta Erronkaribarkotzat *-k*-dun aldaerak jasotzen baditu ere, XVII. mende hastapenean *vaisi* bat bederen bada Erronkarin (*Erronk*, 10, 1g). *Jainko* aldaera, ohikoa Nafarroan, ez da Zaraitzun beranduago dugun *xinko* edo *jinko* (cfr. *OEH*, s. v. *jainko*).

Baldintzazko egituretarako *balin* dator (26)-n [aditz oina + *balin* + *ba* + **ezan*] erako egituran, eta *balin* gabe (27)-ko *arbadecat* adibidean. *Balin* gabekoa da, orobat, (29)-ko *espadaquic*⁸⁹. Baldintza egiteko modu hau ekialdean adi daiteke egun, inoiz hedatuago egon bada ere (Azkue, 1935: 58). Interesgarria da egiturotan *arbadecat* eta *arr balin baneça* formetako adizkiak erkatzea, lehena orainaldian dagoen bitartean, bigarrena iraganean baitago. Horri gainera dakiok, Izalzuk *balin* duen bitartean, Landa alkatearen ahotan *baldinba* dugula (30)-en. Lehenak Zaraitzuko forma ematen du

⁸⁷ Aldaera ohikoa da Nafarroan eta Iparraldean ere (cfr. *OEH* s.v. *belarri*).

⁸⁸ Gogoan izan ziur aski zuberotarra zela pasarte horren ekoizlea. Caminok (2011: 91) ordea, Zaraitzun *artzai* dagoela dio, Zuberoan ez bezala.

⁸⁹ Bada ezezkotetan *bal(d)in* ez darabilen autorerik (cfr. *OEH*, s.v. *baldin*).

(*cf.* Camino, 2003b: 96), ez ordea bigarrenak, hemen, ekialde zabalean bezala, aditzondo gisa lekukotzen denak (*cf.* OEH, s. v. *balidinba*).

Aditz morfologiari begiratuz gero, ez dugu **eradun* erroko formarik kausitzen: geroaldirako *-en /-ko + -i(n)-* erroa dugu *emanen nioque* eta *eracuchico diot* adibideetan. *-i(n)-* dago, salbuespen bakan batzuekin⁹⁰, Ros erronkariarrak zuberotarrei idatzitako gutunetan ere (*Erronk*), baina **eradun* erruz aurki daiteke zuberotarrarenetan (*cf.* banaketa dialektalaz Lakarra 2011: 197-198). Geroaldirako, gainera, ez dago **iron* erroko adizkirik lekukotasunetan⁹¹. Aginteran aditz oina dugu *compon bite* forman, eta **edin* erroko adizkiak ez du txistukaririk akabuan. Aski irakurketa iluna du, guk *goaye* eman dugunak. Badirudi horrelako formak posible direla orduko nafarreraz, *M-n* bertan (91-92) Barasoainen lekukoturik baitugu forma hori bera 1593. urtean; gainera *-ye* duten beste zenbait forma Beriainek ere baditu XVII. mendean (Reguero, 2015: 595). Zaraitzun orduan baziren jakitea lan zailagoa da, hala ere, *g-* hori posible zen XVII. mende hastapeneko Erronkarin ere, Rosen gutun batean *gauça guengati* (< **ohengati*) irakur baitaiteke (*Erronk*, 16, 1g)⁹². *Lagundu* aditzak Nor-Nori erako adizkia galdatzen du, *Jayncoa lagun daquiála* egiturak salatzen duenez. Azkenik, zukako alokutiboa behar da izan (30)-eko *duçu*, testuinguruari so. 1617ko Erronkarin *Agustin Martin Uztarrozeoac ygorri derautaçu ynformacione eguin duena* dugu (*Erronk*, 15a, 1a)⁹³, beraz, baliteke ordurako alokutibozko formak Zaraitzun ere egotea, gero ere egon diren bezala (Camino, 2011: 124). Ikusten denez, alkateak Mariari zuka egiten dion bitartean, hika zuzentzen zaio Pedrori.

Arestian aipatu dugun bezala, plural hurbilaren erakusgarri da *bioc*. Lehen testuetatik zabal lekukoturik agertzen da, *Etx-ek* (VII, 18) ere badu *bioc*, baina ekialdean galduz joan da (*apud* Martínez-Areta, 2013: 295); hale-re Caminok (1997: 368 hh.) eta Ibarrak (2000: 127) badakarte adibiderik Aezkoa eta inguruetan, ez horren aspaldi jasoak.

Erakuslean *ori* dugu, hasierako herskaririk gabe, Nafarroa erdi-ekialdean lekukotzen denaren kontra (hedadurarako, *cf.* Camino, 2003a: 443). Gauza bera gertatzen da XVI. mendeko Erronkaribarko Burgiko sorginkeria prozesuan (*ConTAV*, § 5.2.3), eta Zuberoa eta Erronkariren arteko 1616ko gutunetan (*Erronk*)⁹⁴, baina badirudi XIV. mendetik bederen herskaridunik egon dela, Pater Noster Txikian sobera gardena ez den *gura* bat baitator (*TAV*, § 2.2.15: 7. lerroa). Dena dela, Mitxelenak (*FHV*, 247) dioskunez, herskariak determinatzaileetan ageri ohi dira batik-bat, baina izenordainetan, honakoan bezala, *ori* ere aurki daiteke erronkarieraz. Gainera, sekula orokorrak izan zirela pentsatzeko arrazoi handirik ez dago (*cf.* Reguero, 2012: 141), beraz, berrikuntza badira (Lakarra, 2015: 432) gure lekukotasunetatik beranduagoko garaietan irits zitezkeen Zaraitzu-Erronkaribarrera.

⁹⁰ *Cf.* *ygorri derautaçu* (*Erronk*, 15, 1a), esaterako.

⁹¹ XVII. mendean Erronkarin *ecin çufri dirola* dugu ahalerarako, baina ez geroaldirako (*Erronk*, 10, 1g).

⁹² Iñaki Caminok gaztigatu didanez, *-ie* ez da ageri Zaraitzuko ondorengo testuetan. Bestalde, *g-* horrek hasiera bokalikoa sendotzeko balio lezake (*cf.* *guain* 'orain'), edo disimilazioz ere sortua izan daiteke: *yoaye* > *goaye*.

⁹³ Hala itzulita: «*me a henbiado Agustin Martin el de Uztarroz la informacion que a hecho*» (15, 1g).

⁹⁴ Azterketa sistematiko baterako, *cf.* Lakarra (2011: 209-210).

Ablatiboak amaiera herskariduna du, *nondic* formak adierazten digunez. Caminok (2011: 111) erakusten digu *-ti* tarteka ager badaiteke ere, *-tik* dela formarik ohikoena Zaraitzun, izen berezietz landara, behinik behin.

1.10. Etxauri, 1598 (M 105-107, NAO 71558)

Joanes de Ibarak eta Pedro de Bidaurretak, Etxauriko biztanleak biak, 200 dukat eskatu zizkieten maileguan Iruñeko Jaun Done Satordi parrokiari, bakoitzak erdi bana har zezan, baina Ibarak dena beretzat gorde omen zuen. Bidaurretak salaketa jarri zuen alkatearen aurrean eta epaileak Ibarra zigortu. Martin de Larrageta Iberoko errege eskribauak hartu omen zituen epaiketa horretan deklarazioak.

Aurrerago, hainbat adiskiderekin Etxaurin jokoan zebilela, Ibarak epaiketaren peskizak gidatu zituen eskribaua gogor kritikatu zuen; epaile eta alkateen baimenik gabe egin zuela ikerketa eta hartu zituela deklarazioak, sinadurak faltsutu zituela... Hitzok Larrageta-rengana iritsi ziren, eta Ibarri salaketa jarri zion irainengatik⁹⁵.

Larragetak irainak beretzat zirelakoan salatu zuen Ibarra, baina antza denez, Ibarak ez omen zuen garbi utzi hitzak nori zuzenduak ziren eta arazoa norekin izan zuen, Etxauriko errege idazkari Lorentzo de Anburtzearekin edo Larrageta Iberoko idazkariarekin berarekin⁹⁶. Peskizak irainok zein eta no-rentzat izan ziren argitze aldera egin ziren.

Pedro de Iturralde zen Ibarrekin Etxaurin jokoan zegoen gizonetatik bat. Honakoa entzun zion Ibarri, Pedro Huarte eskribauak hala jasorik:

(33) *berche alacoric ere*⁹⁷ *baçela* (4g)⁹⁸

Lope de Brigant-ek, Huartek jasotako deklarazioan, Ibarri honakoa entzun ziola dio:

(34) *berçe bat*⁹⁹ *ere estago urruti*¹⁰⁰, «*mediante juramento*» *arrtu çuela falso-ro, juezaren*¹⁰¹ *firma bague*¹⁰², *bere firma berarequi, cerbayt yradoquico çiola sudus. Eta joaninça aurreco escribauarengana*¹⁰³ *eta erran draut eçela aren ehetic*

⁹⁵ Larrageta salatzaileak berak horrela eman zuen gertakariaren berri: «[Ibarra] *a ydo publicando ante muchas personas honrradas que el suplicante [Larrageta] la dicha provança havia hecho sin mandado ni comision del juez y que avia contraecho firmas de escribanos y fabricado autos falsos y que asi avian sido dadas por falsas las dichas informaciones que el suplicante recevio y que tenia capturas contra el suplicante proveydas...*» (1a-g).

⁹⁶ Martin de Zabaltzaren deklarazioan ikus daitekeenez, Lope de Latorrek, haiekin zegoen beste lekuko batek, Ibarri esan zion ez zuela garbi nori buruz ari zen: «... y el dicho Lope de la Torre [...] *respondio y dixo al dicho acusado [Ibarra] que el escribano de Echauri o el de Ybero debian de ser que por aca cerca no ay otros escribanos y a estas razones respondio [...] el dicho acusado por el escribano de Ibero, ques el dicho quexante, "ese mesmo es" y [...] dixo [...] que si tal avia echo que el lo pagaria i no declaro por quien ni en que razon se hizieron las dichas probanzas*» (7a).

⁹⁷ *ere* hitzaren aurretik beste hitz baten hasiera dago ezabatuta: *egui...* akaso?

⁹⁸ Itzulpen zuzen eta garbirik ez dator, baina Martin de Zabaltzaren deklarazioan honakoa jaso dugu: «*bien ay aqui escribano no muy lexos que a echo probança falsa*» (7a).

⁹⁹ M: *berçibat*.

¹⁰⁰ Euskarazko pasarte honen aurretik gaztelaniaz hasi zen eskribaua, eta gero ezabatu: «*otro y todo no esta l...*» (4g).

¹⁰¹ *juezaren* hitzaren aurretik *eta aren autoa* dago ezabaturik.

¹⁰² M: *basue*.

¹⁰³ M: *escribaurensana*.

alaco despachuric probeytu, eta acheguín¹⁰⁴ ar bes, eçe arc¹⁰⁵ pagatuco dit salsa¹⁰⁶ (5g)¹⁰⁷.

101. oin-oharrean esan dugun bezala, *eta aren autoa* ezabaturik dago Briganten deklarazioan. Zenbaitetan eskribauek ezabatutako eta gehitutako pasarteetan laburpena egin ohi dute deklarazioaren amaieran, ez dezaten horrelakoek deklarazioaren edukia nahas edo gaizki aditzera eman. Brigantenaren hondarrean eskribauak berriz eman du arestian ezabatutakoa, *M-k* jaso ez badu ere:

(35) *eta aren autoa* (6a)

Huarteke Pedro de Bidaurreteri jasotako deklarazioan hau dator Ibarren ahokotzat:

(36) *orayngo guiza aldardean nay dudana pasatuco dut* (10a)

eta hara Migel de Dicastillok Ibarren entzun ziona, Huartek jaso:

(37) *orayco guiza aldardean arraçioric batre baldin badaucat⁰⁸, estaut Amburçeac orayco aldian nay duenic pasatuco –y que dixo mas–, bay eta escribau batec juramentu artu cerauda eta es omen çen alcateen baytan firmatu, eta escribauagana¹⁰⁹ aguertu ninça¹¹⁰ eta galdetu nio ene contra atera den emendic¹¹¹ «mediante juramentu» bat, eta erran çerauda «es» (11g)*

* * *

Aberats eta luzeak dira prozesu honek jasotzen dituen euskarazko pasarteak. Gainera, hegoaldeko euskara nafarraren (Camino, 2003a, 2003b) ezau-garrizat jo izan diren zenbait elementu, geroko testu eta hizkeretan ere agertuko direnak, lekukotzen ditu dagoeneko¹¹². (33)-k eskribau bati buruz ari zirela ematen du aditzera; antzeko bat ere bazela inguruan. Gauza bera gertatzen da (34)-ko lehen esaldian. Horregatik sortu ziren zalantzak irainak Iberoko edo Etxauriko eskribauari zuzenduak ziren.

Lexikoari eta aldaerei gagozkiela, bi pasarteek agertzen dutenez, *bertze* da agertzen den aldaera, alde grafikoak bazter utzita. (34)-k *erran* dakar, espero bezala, eta *urruti*, *OEH*-ren arabera hegoaldeko goi nafarreraz ere badena. Nire ustez, «*mediante juramento*» edo (37)-n apur bat euskaraturik ageri den «*mediante juramentu*» bat izen gisa hartu behar dugu, «zinpeko deklarazio»-ren pa-

¹⁰⁴ *M: achequin.*

¹⁰⁵ *E: [.]arc, hizki bat nahita ezabaturik du hasieran, M: pare.*

¹⁰⁶ *M: falsa.*

¹⁰⁷ Etxauriko Lope Brigant-ek beste deklarazio batean hitzak gutxi gora behera itzuli zituen: «*a proposito que hablaban de Lorenzo de Amburçea, escribano, querian dezir otro escribano que no es lejos a tomado deposiciones falsas mediante juramento sin firma de juez, con su mesma firma, por hazer dezir algunas cosas. Porque yo estado en cassa de un escribano y me dixo que de su cassa no habian salido tales recaudos, y tome placer, quel me pagara la salssa*» (51a).

¹⁰⁸ Ematen du *baldinbadautac* zegoela eta zuzendu zela. Metatesi bidezko errata izanzen zen hain segur.

¹⁰⁹ *M: escribauazana.*

¹¹⁰ *E, M: ninca.*

¹¹¹ *E: emen dic dic.*

¹¹² Horrek lan honen mugetatik arras urrun dagoen helburu bati ekiteko bidea ematen du: zenbait ezau-garriren abiapuntu geografikoa zein izan zitekeen deskribatzea, hain zuzen.

reko edo. Ematen du, inoiz orokorra (Hegoaldeko euskaran bederen) izan zen *bague* aldaera *gabe*-ren kaltetan galduz joan dela emeki. Goi-nafarreraz Beriainek lehena darabil, baina Lizarraga Elkanokoak *gabe* baizik ez. Biak darabiltzaten autoreen adibideak aurkitzea ere ez da zaila (cfr. *OEH* s. v. *gabe*)¹¹³. Orobat, *aurre* dator (34)-n eta ez *aitzin* edo horren aldaerarik, goi-nafarrerazko testu zenbaitetan bezala, nahiz eta Beriainek ere *aurre* duen. *Salsa*, *M*-n oker irakurri dena, *nahas-mahas*-en adierakidea da hemen. Euskal testuetan adibide gehiago ikusteko, cfr. *saltsa* sarreraren bigarren adiera *OEH*-n.

(36)-k *orayngo* duen bitartean, (37)-k *orayco* dakar bi aldiz, eta biak omen dira Ibarraren ahoko. *OEH*-k (s. v. *orain*) batik-bat forma sudurkaririk gabea du Nafarroakotzat, eta ez du polimorfismoaren adibiderik ematen. Ezin jakin Bidaurreta eta Dicastilloren desberdintasun dialektalari zor zaion, eskribauaren eskuari, edo hizkeraren barneko bariazioari¹¹⁴.

Beste behin dugu *arraçio*, franko lekukoturik hegoaldeko goi nafarrerazko testuetan: Beriainek, Elizaldek edo Lizarragak esaterako, badute (cfr. Camino, 2013: 115), eta Iruñe inguruko euskaran ohikoa ematen du (Salaberri, 2000: 888), nahiz eta hedadura anitzez ere zabalagoa duen (Camino, 2003a: 439). Lan honetan bertan, Muruzabalgo (§ 1.11) prozesuan ere ikus daiteke.

Sinkopak daude *draut* bezalako aditzetan¹¹⁵, eta *batre* ere badugu, baina *atera* ere bai. Sinkopa, beraz, ez da oso sistematikoa lekukotasun honetan eta Caminok (2013: 122-123) salatzen duenez, aztertzeke dago oraindik sinkoparen funtzionamendua eta azentuarekiko duen lotura.

Grafiak beti dira zalantzazko, baina *juramentu* eta *juezaren* ikusita, ez du ematen *joan* aditzak ahoskera sabaiaurrekoa duenik, Etxauri inguruan beranduago lekukotzerik baden arren. Sabaikaria izan daiteke, baina ez dezagun ahantz ahoskera belarra ere sartu dela nafarreraren eremuan, beranduagoko lekukotasun zenbaitek erakusten duten bezala (Camino, 2003b: 69).

Bereziki aipagarria da *iradoki* aditzaren erabilera, semantikoki *idoki* 'atera'-ren forma arazlea baita, 'esanarazi' zentzua hartzen duena (cfr. gaztelaniazko *sonsar*)¹¹⁶. *OEH*-k (s. v. *iradoki*) Iparraldeko autoreengan baizik ez du hitza erabilera horrekin lekukotzen, Hegoaldekoek ez baitute berandu arte erabiltzen, eta 'proposatu'-ren zentzuan. Adibide honek, bistan dena, kontra egiten dio *OEH*-k dakarren banaketari.

Pasatu aditzaren esanahia ilun samarra da. (37)-n arazlea ematen du, eta *pasa arazi* bezalako zerbait adieraz lezake, ez haatik (36)-n. Orobat gertatzen da *guiza aldarte* esamoldearekin. *Aldarte* zabal lekukotua dago, 'egoera', 'aukera', 'denbora', 'tarte' eta gisa horretako esanahiekin, *OEH* begiraturaz gero jakin daitekeenez. *Giza*-rekin batera konposizioan bakan aurki daiteke, eta testu berrietan. Ez dirudi lehen elementuak adiera gehiegi alda dezakeenik, dena dela. Ez ahantz horrekin batera *orayco aldian* ere badugula, eta *gizaldi*

¹¹³ Caminok (2003b: 77) Hegoaldeko goi-nafarrerak gordetako arkaismotzat du *bage*.

¹¹⁴ Posible da, Iñaki Caminok azaldu didanez, *oraingo* eta *oraiko* erabiltzea, baina *orai* beti, eta ez *orain*. Hala jaso omen zion Orbarako hiztun bati. Hortaz, genitibodun formak eta gabeak bilakabide beregaina izan dezakete.

¹¹⁵ Halere nahiko polimorfikoak dira **eradun* aditzaren adizkiak lekukotasun honetan (cfr. aurrerago).

¹¹⁶ Gogoan har prozesuan «*hazer dezir*» itzuli zutela *iradoki*.

edo gizarte ere existitzen dela, nahiz eta ez den, distribuzio geografiko, semantiko eta kronologikoagatik, honekin lotzen erraza.

Hitz iluna irudi luke *sudus* horrek, irakurketa argi samarra izanik ere, ez baitu hastapenean ez semantika ez morfologia gardenik. Gure ustez instrumentalean dago, eta segur aski instrumental apikarian, kontu grafiko hutsez haratago¹¹⁷. Baina *sudu* badator *OEH*-n: zenbaitetan apikariarekin eta beste-etan bizkarkariarekin ageri da eta hitzaren lehen adiera ‘interesa’-edo da, instrumentalarekin erabilia usuen. Zentzu horretan hedadura urriko hitza da, Oihenartek eta Leizarragak dakartena (nahiz eta XX. mendean autore kultu zenbaitek baduten). Beraz, ‘interesez’ ulertu beharko genuke *sudus* hori.

Bestalde, *-ro* atzizki moduzkoa dago *falsoro* hitzean, eta ez *-ki*. Caminok (2013: 109) erakusten duenez, horrelakoak Nafarroan badira, Beriainen testuetan edo 1609ko poesia sariketan kasu.

Soziatiboa sudurkaririk gabea da: nafarreraz aise topa daiteke kidekorik, adibidez Hiriberri Arakilgo predikuetan (Salaberri & Urrizola, 2008) eta berriki Erroibarren (Ibarra, 2000: 101-102), Ultzaman, Anuen, Atetzen (Ibarra, 1995) edo Sakanan (Erdozia, 2001: 240). Reguerok (2015: 593) azaltzen duenez, sudurkaririk gabeko soziatiboa hegoaldeko nafarreraren ezaugarria da lehen testuetarik, baina ez bide da nafarrera osoarena, eta bai, ordea, nafarreraren eremutik landakoa ere, ekialderagokoa, batez ere (Camino, 2003a: 446).

Amaiera sudurkaririk gabeko iraganeko adizkiak ere baditugu, *çerauda*, *[n]inça* edo *nio* kasu. Zabala da ezaugarri horren hedadura historikoa (cfr. Camino, 2003a: 437, 2003b: 67). Etxauri, Salaberriren (2000: 892) maparen arabera, horren eremuan legoke, eta aspalditik, hemen ikus daitekeenez.

Aginterazko forma da *acheguin ar bes*, aditz oinarekin eraikia. Aditz languntzailea apokopeduna da (cfr. *FHV*, § 6.4 eta § 21.11) eta Caminok (2003a: 455-456, 2013: 115) Nafarroa Garaiko erdigune zabalean ere badela dio, baina bada mendebalean ere: cfr. *RS*-n *çe bez aurqui guero* (166). Ohart bedi, bide batez, adizkiaren subjektua hirugarren pertsona baita, berorikako tratamenduaren erakusgarri dela. Erdal itzulpeneko *tome placer* horrek bermatzen du hori. Beriainek eta Elkanoko Lizarragak ere badute horren adibiderik, **ezan* aditzarekin bereziki: «*ar bez au kuidado ez solta, ezi joain zaio birtutea; para bez begien gañean eta ikusiko du*» aukeratu dugu, Salaberrik (2008: 607-608) ezaugarria aipatzean emandako Lizarragaren adibideen arte-tik. Ez da erraza, edozein modutan, berorikako tratamendu horren subjektua nor den jakitea: eskribaua? entzulea?

**eradun* eta **-i(n)*- erroen arteko txandaketa ageri du prozesuak. (34)-n *yradoquico çiola* eta *pagatuco dit* dugu, baina *erran draut*; (37)-n ordea, *estaut* [...] *pagatuco*, *arrtu cerauda* eta *eman çerauda* ditugu, baina *galdetu nio*. Gogoan har pertsona berak esandako hitzak omen direla, nahiz eta lekuko desberdinen bidez jaso ziren. Txandaketak ohikoak dira testu zaharretan

¹¹⁷ Gauza jakina da instrumental bizkarkaria nafarreraren ezaugarri zaharren lekukotuetarik dela, Erdi Aroan Nafarroako Foruan datorrena (*TAV*, § 2.2.13), edo Amenduxen poeman (*TAV*, § 3.1.18), zein Beriainen testuetan. Ezaugarri honen distribuzio zahar eta modernoaz cfr. Camino (2003a: 453, 2013: 101 eta 113) eta Reguerok (2015: 594), baita Salaberriren (2000: 898) mapa ere.

(*cf.* Reguero, 2015: 591), baina ez da erraza horien arrazoiak aurkitzea, eta nafarrera bereziki nahasia omen da horretan¹¹⁸: «*Les textes haut-navarrais du 16ème siècle, présentent aussi bien des formes de *eradun que des formes de *i [...]. Néanmoins, ne connaissant pas la provenance exacte de certains des textes étudiés [...], il est assez difficile d'offrir de conclusion embrassant les différentes variétés du haut-navarrais*» (Mounole, 2011: 137-138).

Gurean ere *dit* zein *estaut* dugu, biak Hark-Niri-Hura erakoak. Edonola ere, Iparraldeko testu zaharretan datiboa 3. pertsona denean agertzen omen da *-i(n)- *eradun* baino gehiago (Mounole, 2011: 137 eta 259), eta gure adibide apurretan (*çiola* eta *nio*) ere hala gertatzen dela ematen du, *pagatuco dit* horren salbuespenarekin. Dena dela, *didaçu* eta *deraudaçu*, biak ditugu Ezkurrako (§ 1.4) prozesuan ere, nahas-mahas horren erakusgarri. Segur aski corpus zabalagoaren azterketa sistematikoak emanen luke bi aditz erroen arteko banaketan argirik. Bestalde, nafarreraz franko lekukotua dagoen *draut* forma sinkopatua dugu (34)-n, baina baita sinkoparik gabea iraganean, eta garairako fonologikoki aski aitzinatua ematen duen *estaut* ezezkoan, (37)-n (*cf.* Camino, 2013: 106-107)¹¹⁹.

Aipagarria da, bide batez, erdal itzulpenean *he estado* dena *joan ninça* dela euskaraz, baina *me dixo, erran draut*.

Leku-denborazko kasuetan *-tik* dugu ablatiboan *echetic* eta *emendic* adibideetan. Bizidunei dagokienez, adlatiboan *escribauarengana* dago (34)-n, baina *escribauagana* (37)-n, lekuko desberdinek hiztun berarenak diren hitzak errepikatu dituztenean. Inesiboan, ordea, *alcateen baytan* daukagu. Regueroren (2015: 590) ustez *-gan* eta hartatik eratorritakoak zaharragoak dirateke *baita*-tikoak baino, baina denak agertzen omen dira nafarreraz lehen testuetatik. Hemen dakusagun polimorfismoak, are pasarte berean ere, pentsatzera garamatza ez ote den *-gan*-etik *baita*-rako bide horretan elkarren arteko kronologia erlatiborik ezartzen ahal inesibo, adlatibo eta ablatiboaren artean¹²⁰.

Erakusleek ttap dute *aren* adibideak ageri duenez (vs *harren* dardarkari-duna)¹²¹. Orobat, lehen pertsonan izenordain indartugabea *ene* da oraindik. Gainera, Linschmann-Aresti legea betetzen da, *bere* baitugu *ziola* aditzarekin komunztaduran, eta *aren* eta *ene*, komunztadurarik gabe.

Azalpenezko balioa du hemen *eçe* partikulak. *OEH* begiratuta (s. v. *eze*), ematen du azalpenezko balioa duenean *eze*-k ez ohi duela, hemen bezala, *-la* menderagailua hartzen, eta Beriainek ere badakar horren adibiderik *OEH*-ren arabera. Ez da, edonola ere, euskara nafarraren ezaugarri berezkoa (Camino, 2003b: 64).

¹¹⁸ Txandaketaren adibide garbi bat bihurtu nahi genuke hona. Beran XVII. mendearen bigarren erdian ekoiztako pasarte hau: «*otoy eguiten derauçut eguin deaçadazun favore egorceaz bi eun erreal diruriq berce aldi batean falta yzanan badaere eta dozena bat errugo ogui eta baba eta otoy eguiten dizut despacha detzatzun arren laster*» (Urrizola, 2006: 265. Beltza geurea).

¹¹⁹ Prestigio kontuek ahozkoan gerta litezkeen zenbait fenomenoren idatzizko lehen agerpena atzera dezakete eta hitzak «osorik» ahozkatzea maiz lotzen da hizkera prestigiotsuarekin (*cf.* honetaz Camino, 2009: § 6).

¹²⁰ Creissels & Mounolek (2011: 174) erakutsi dute *Etz*, Maizter eta Sarako Etxeberriren testuetan ere gauza bera gertatzen dela: «*[Baita] is rarely found with nouns [...] in the allative or ablativ (which are predominantly formed by means of gan)*», baina Nafarreraz salta handiagoa dugu (*cf.* Reguero, 2015: 590).

¹²¹ Halere, ezin da dardarkaria nafarreraren ezaugarritzat hartu, hedadura geografikoa zehaztea aski arazotsua geratzen baita (Camino, 2003b: 62).

1.11. Muruzabal, 1605 (M 114-115, NAO 149615)

Enerizko Graziosa de Arandigoien Joan de Uretaren alarguna zen. Lur batzuk zituen Muruzabalen eta hara bidali zituen lau morroi, lurrok ereitera. Horretan zihardutela, Grazian de Ureta, Joanen anaia eta Graziosaren koinata, morroien lana gainbegiratzera azaldu zen, hark baitzeraman lurren ardurara Graziosa alargunduz geroztik. Alor bateko lana bukatuta, Grazianek lau morroietatik hiru beste alor batera bidali zituen lana jarrai zezaten, eta laugarrena Grazianekin geratu zen erein berri zuten alorrean.

Ondoko alor batean lanean zebilen Joan de Grez eta hitzik esan gabe, morroi gehienak beste alor batean zeudela aprobeztatuz, Ureta erasotzera joan zen, baita gogotik zauritu ere, gainontzeko morroiak laguntzera joan zitzaizkion arte.

Anton de Suarrondo eta Joanes de Orisoain morroiek euren deklarazioetan azaldu zuten nola Ureta lanak gainbegiratzera ailegatu baino lehen, lau morroiak alorrean lanean zebiltzala, Grez haserre inguratu zitzaien. Orisoainek dioenez, galdera hau plazaratu zien Grezek morroiei¹²²:

(38) *badariçosu er[r]an dausquidala¹²³ ar[r]açeo [o]nac¹²⁴* (5a)¹²⁵

Suarrondok eta Orisoainek haiek gai hartaz deus ez zekitela arrapostu eman zioten Grezi, eta Orisoainek gaineratu zuen, ea zein ziren arrazoï horiek.

* * *

Gehitu ditugun bokal eta kontsonanteek azalpena merezi dute. Hots darkariak grafema bikoitza behar duela ziurtzat jo daiteke. Bestalde, gure iritzi, *araçe* formak ez du azalpen argirik; bai, ordea, *arraçeo*-k, hegoaldeko goi-nafarreraz *-on(e)* jatorriko maileguetan lekukotua dagoen metatesia gogora ekartzen badugu (*saroi* > *sario*, *arratoi* > *arratio*, edo Beriainen, Elizalderen, Lizarragaren edo baita Muruzabalgo XVIII. mendeko 2. sermoia-¹²⁶ *arracio* beste batzuen artean) (*cf.* Camino, 2003a: 439, 2013: 115). Aski genuke, honakoan, *-one* > *-oe* > *-eo* bilakabidea proposatzea. Hartara, *arraçeo* *-eo* > *-io* disimilazioa gertatu aurreko fasetzat har dezakegu, edo hiperzuzenketa hustzat¹²⁷. <o> bakarra idatzi izanak ondoko adjektiboak hasieran bokal bera duela izan dezake sorburu.

Hori horrela, *iritzi* aditzaren forma trinkoan duda egin dezakegu *-zu* edo *-zue* eman behar dugun; komuntadura plurala izanik ere, ezin dugu baztertu garai eta eremu ez oso urrunetan baditugula oraindik *-zu* pluralaren arras-

¹²² Jatorrizkoan ez dago galdera ikurrik, baina testuingurua eta itzulpenak kontuan izanda, behar duela uste dugu.

¹²³ *E, M: badariço sue randaus quidala.*

¹²⁴ *E: araçonac, M: araçe onac.*

¹²⁵ Suarrondok bere deklarazioan erdaraz eman zituen Grezen hitzak: «*hombres de bien, ços parece que buenas razones me a dicho don Gracian?*» (7a).

¹²⁶ Satrustegik (1987: § 26) Muruzabalen aurkitutako XVIII. bi sermoi dakartzta bere liburuan. Euskara desberdina dute eta lehena, nafarra bada ere, bigarrena baino iparralderagokotzat dut: horren zergatia azaltzeak luzeegi joko luke. 2.ak, ordea, hegoaldeko itxura gehiago du, nahiz eta, Satrustegik (1987: 63)-ren esanekin bat, ezin den itsu-itsuan Muruzabalgo hizkerakotzat hartu.

¹²⁷ Toponimian ere bada *-io* / *-eo* txandaketaren adibiderik. Morionesen *sareocarreta* dago 1596an eta *Sario Jarreta* aldiz, 1616an. 1680an ordea, *Sareo sarreta* agertzen da berriz (Salaberri, 1994: 702).

toak (*cf.* hemen bertan Ezkurrako adibidea § 1.4-n). Hala bada, ez dugu uste balizko *-zue* bat proposatu behar denik, *-e* ondoko hitzaren hasieran bilatuz, *arraçeo* formarekin egin dugun bezala. Adizkiak *da-* du orainaldiko marka, eta ez *de-*. *Euskal Klasikoen Corpusak* Iparraldeko autoreengan baizik ez du lekukotzen aldaera hori.

**eradun* erroko forma da *dausquidala*. Oso goiztiarra da *dauzkidala* bezalako forma higituen lekukotze hau¹²⁸, eta gainera Caminok (2013: 106-107) Nafarroa Beherekotzat duen tarteko urrats bat eskatuko luke, *dera-* > *dara-* > *da-* hain zuzen. Dena den, hemen bertan jasotako Etxauriko (§ 1.10) eta Artaxoako (§ 1.12) pasarteetan ere bada bilakabide honen adibiderik. Bestalde, XVIII. mendeko Muruzabalgo sermoian *dizquidan* dugu, *-i(n)-* erro-dun forma.

1.12. Artaxoa, 1607 (M 118-119, NAO 2163)

Artaxoan, Karlos de Ollakarizketak Migel Colomo alkatea eta Anton Andia erregidorea salatu zituen, dolu-oihal, kandela eta ofrenda batzuk kenarazi zituztelako salatzaileak herriko Done Satordi parrokian zuen hobitik. Ollakarizketaren emazteak alabaren hobian eskaintza egitera bidali zuen Katalina de Azterain, familiaren zerbitzaria. Alkateak, ordea, horiek kentzeko esan omen zion zerbitzariari, gorpua hobiratu zenetik urtebete baino gehiago igarota, horretarako eskubiderik ez baitzuen, nonbait. Berriz jartzeko saiakera egin omen zuen, eta oraingoan Andiak berriz kentzeko iradoki.

Joan de Ortitz Artaxoako biztanleak, Colomok Azteraini honako hitzak zuzendu zizkiola esan zuen:

(39) *estesaçula*¹²⁹ *bana*¹³⁰ *alombra ori*¹³¹ *eçe*¹³² *urtea beteric dagola*. *Çoas, çaynço(?)*¹³³ *çure nagusiari nic erran drayçudala*¹³⁴ (31g)¹³⁵

* * *

Prozesuan, gaztelaniaz ere, *alombra* aldaera dator, kontsonante ezpain-horzkaririk gabea. Gaur egungo grafian *alhombra* litzatekeena ez da dagoneko gehiegi erabiltzen gaztelaniaz, baina gaztelania zaharrean maiz lekukotzen da. Euskaraz, ordea, Landucciren hiztegian baizik ez dugu aurkitzen, *alhombra*: *alhombrea*.

¹²⁸ Garaiko autoreek forma osoak darabiltzate, edo *dra-* sinkopadunak (*cf.* Reguero, 2015: 591), baina Borja Ariztimuñok gogorarazi digu Materraren 1617ko *Doctrina Christianan* Oihararden hitzaurrean badagoela *dakola* (<*daraukola*>) forma bat. Oihararden testua ez dago lapurtera klasikoan eta ekialderagoko kutsua izateaz gain, ez da horren euskara zaindua. Hemen landutako pasarte batean bertan (37) *estaut* (< *ez deraut*) dugu. Horrek pentsatzera narama **eradun*-en forma osoak ez ote diren euskara idatziaren isla baizik.

¹²⁹ *E, M: este saçula.*

¹³⁰ Hitz honek zuzenketa bat du aurretik, *re-* akaso.

¹³¹ <o> beste hizki baten gainean zuzendu zen.

¹³² *E: orie çe. orie* hitzak zuzenketa tatxatu bat du aurretik. *M: orie çe.*

¹³³ *E, M: çaynço.*

¹³⁴ *M: errandia yçudala.*

¹³⁵ Prozesuak itzulpen zuzenik ez badakar ere, franko dira zentzu bera duten bestelako pasarteak. Azterainek berak hala kontatu zuen gertatutakoa: «*Miguel Colomo [...] dixo a esta que depone que quitase el paño y lo demas que tenia puesto sobre la dicha sepultura y que saliese del januado*» (6a). Colomok, aldiz, horrela deskribatu zuen: «*los disculpantes abvirtieron y le dixeran a la criada del dicho Ollacarizqueta y le dieron recado para su amo que hera ya acabado el año de la defunssion y que no tratasse*

Eze... -*la* egiturak balio osagarria izan ohi du, baina hemen azalpenezkoa ematen du gehiago. *OEH* begiratura (s. v. *eze*), ematen du azalpenezko balioa duenean *eze*-k ez ohi duela -*la* menderagailua hartzen, baina adibide honek kontrakoa erakusten du. Funtzio osagarrian Beriainek dakar eta mendebale-rago ere agertzen da.

Aginteran *banatu* aditzaren oina azaltzen da.

Forma iluna da *çaynço*. Hasierako kontsonanteak <c> hutsa ematen badu ere, soinu txistukarizat jotzea hobetsi dugu, nolabaiteko adizkia delakoan. Nor-Nori (Zu-Hari) saileko forma dirudi, objektu zuzenarekiko komunztadurarik gabea. Garai historikoan iragangaitz gisa jokatzetik iragankor izatera pasa diren aditzen adibide zenbait badira: hor ditugu *erran* aditzaren forma aginterazkoak *Laz*-en eta hemen jasotako testu batean bertan (cfr. Larrasoañako testua § 1.5-en), *jarraiki* aditza, eta beste. Itzulpeni begiratura, (*dieron recado para su amo; y dezilde [sic] a vuestra dueña*) ematen du *esan* aditzaren forma sintetiko gisa ulertu behar dugula, hasierako kontsonantea txistukaria bada, baina *erran* da testuan ageri den aditz forma. Hori horrela, huts gisa ere har liteke eta *çarreço* edo *çarriço* berrezarri, hots, *erran* aditzaren forma trinkoa, *Laz*-en beste pertsona batzuekin lekukotzen dena, eta Larrasoañako pasartean (§ 1.5) ere azaltzen zaiguna¹³⁶. Nor-Nori (Zu-Hari) saileko forma dirudien honek, bestelako errorik izan lezake oinarrian, baina bakoitzak arazo espezifikoak dakartza. *Jin* ere izan liteke horietako bat, 'ailegatu' zentzua ere izan baitezake (cfr. *OEH*) baina horrek morfologia du kontra: *jin* aditzaren erroa **din* bada (Lakarra, 2006: 573-574), -*i*- hutsa espero genuke adizkian, eta ez -*in*. Sudurkaria agertzeko aukera bakarra, -*i*-erroko bokalak noizbait aurretik izandako sudurkari batek eragindako sudurkaritasuna gorde eta ondotik berrezarri izana da (cfr. **arrani* > *arraĩ* > *arrain*), hori horrela, *indazu*, *iguzu* eta gisa horretako adizkien atzean dugun **nin* 'eman' erroa (Lakarra, 2008: 479-482) dateke hemengo ere, baina oraingoa semantikak justifikaziorik behar du: pentsatu beharko genuke 'eman' norbaiti berriak eramatearen zentzuan erabilia dela hemen nolabait. Ez dago lekuz kanpo gogoratzea, egun **nin* erroko formek ekialdea badute bizileku, garai zaharretan erabat hedatuak egon direla. Adibide zenbait aipatzeagatik, *jaunatiçula* (< *jaunak dizula*) dugu Nafarroako XV. mendeko bi gutunetan (*ConTAV*, 75-76) *indac* Irunberrin 1629an (*ConTAV*, 160) *iquedac eta diqueada* RSn, *dindan*, *indaçu* eta beste *Laz*-en... Gainera dezagun *M*-n Linschmann-Aresti legea hausten duen adibide bakanetakoa litzatekeela honakoa, *çure* baitu lagun.

**eradun* erroko adizki bat dago, *au* > *ai* bilakabidea agertzen duena. Ez du ematen hegoaldeko goi-nafarreraz oso bilakabide arrunta den, nahiz eta lexikoan badiren hedadura zabaleko adibide zenbait, cfr. *kaiku* (< lat. *caucus*),

de poner çirio ni alombra sob[re] la dicha sepultura» (19a), edo: «*Miguel Colomo, disculpante, le ablo a la dicha moça y le dixo que no tenia que poner el dicho paño ni cirios [...] en el dicho januado y a esto la dicha Catalina de Azterayn le rrespondio que su dueña le avia enbiado y el dicho Miguel Colomo, discrepante, del puesto donde estava le bolvio a ablar y le dixo "jos y dezilde [sic] a vuestra dueña que ya se a cumplido el año y día de la traslacion de su hija"» (25a, g).*

¹³⁶ Traskek (1997: 164) eta Lakarrak (2008), *esan* eta *erran* aditzen etimologiaz dihardutela, bigarrena lehenaren forma arazletzat dute (**e-ra-san* > *e-sa-ran* > *es-ran* > *erran*). Horrek *Laz*-eko polimorfismoa azal lezake, eta baita hemen duguna ere.

batez ere, hemen bezala, ondorengo bokala <u> bada (FHV, 90-91)¹³⁷. Bestalde, forma sinkopatua da, Beriainek edo Leizarragak ere lekukotzen dutena XVI-XVII. mendeetan, eta baita Iruñeko 1609ko poema batek ere (TAV, 3.1.20: 88. lerroa), edo Zufiko ezkontza fedeak (TAV, § 3.2.6). Forma sinkopatuak bat egiten du Reguerok (2015: 591-592) proposatzen duen banaketa-rekin, izan ere, nafarreraren erdi-hegoaldean kokatzen ditu ezaugarriok.

2. AZKEN HITZA

Akabuko atal honetan, aztertutako testuetan agertu zaizkigun ezaugarriak laburbildu nahi izan ditugu. Taula bat egin dugu eta ezkerreko zutabean ezaugarria deskribatu. Eskuinekoan zein prozesutan kausitu dugun esan dugu, baita noizkoa den ere. Taulan forma guztiak grafia gaurkotuan daude. Aitzina egin baino lehen, irakurleak ohar metodologiko batzuk gogoan atxiki behar dituela jakinaraztea ezin utzizkoa zaigu, datuak tentuz erabil ditzan.

1.- Ezaugarri zenbaiten agerrera zalantzazkoa da, testuaren irakurketa zaila delako, errata bat izan daitekeelako edo geuk nahibesteko irmotasunez egiterik izan ez dugun interpretazio baten ondorio direlako. Horrelakoetan parentesi artean galdera ikurra ezarri dugu.

2.- Prozesua non jazoa den eta artxiboan nola sailkaturik dagoen azaltzen du, unean une eman dugun herriaren izenak. Horrek ez dakar zuzenean ezaugarria herriko hizkerari itsu-itsuan lot diezaiokegunik, hitzek maiz bide luzea egin baitute ekoizlearen ahotik atera eta paperera iritsi diren arte, eta hitzunaren, entzulearen edo idazkariaren eragina zenbaterainokoa izan daitekeen ez dago beti garbi¹³⁸.

3.- Ezaugarri positibo garrantzitsuenak bildu dira. Horrek esan nahi du, inork ezaugarri bat agertzen ez dela ziurtatu nahi badu, ez duela informazio hori taulan antzematerik, eta testura jo behar duela halabeharrez. Bestalde, gure iritziaren arabera interes handiegirik ez duten ezaugarri zenbait ez dira hemen bildu, testuan iruzkindu badira ere.

¹³⁷ Aldiz, Mitxelenak dio Beriain, Kapanaga edo besteren testu zaharretan, gero hedatuko den *mairu* oraindik *mauru* zela (FHV, 91).

¹³⁸ Lekukotasun idatzien fidagarritasunaz, *cf.* Camino (2009: § 18).

Fonologia

<i>au</i> > <i>ai</i>	1.12.- Artaxoa, 1607 (?)
<i>derau-</i> > <i>dau-</i>	1.10.- Etxauri, 1598; 1.11.- Muruzabal, 1605; 1.12.- Artaxoa, 1607
hasperena	1.2.- Eugi, 1565 (?)
<i>-ion</i> > <i>-eo</i> / <i>-io</i>	1.10.- Etxauri, 1598; 1.11.- Muruzabal, 1605
<i>o(h)a-</i> > <i>goa-</i>	1.9.- Otsagabia, 1598 (?)
sinkopa	1.10.- Etxauri, 1598; 1.12.- Artaxoa, 1607

Izen morfologia

artikulu hurbila	1.3.- Eugi, 1566 (?)
atributua artikulurik gabe	1.6.- Urrotz, 1588 (?)
<i>ene</i> erakuslea genitiboan	1.4.- Ezkurra, 1569; 1.10.- Etxauri, 1598
<i>-gan</i> eta <i>baitan</i> bizidun marka	1.10.- Etxauri, 1598
<i>-gatik</i> motibatiboa	1.1.- Lesaka-Goizueta, 1549
<i>ha</i> mugatzailea	1.6.- Urrotz, 1588 (?)
instrumental apikaria	1.10.- Etxauri, 1598
<i>-ki</i> sozilatiboa	1.10.- Etxauri, 1598
Linschmann-Aresti legea	1.2.- Eugi, 1565; 1.4.- Ezkurra, 1569; 1.8.- Puiu, 1596; 1.10.- Etxauri, 1598
Linschmann-Aresti legearen haustura	1.12.- Artaxoa, 1607
objektu zuzena genitiboan	1.1.- Lesaka-Goizueta, 1549
<i>nonbait</i> izenordaina	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>norbait</i> izenordaina	1.4.- Ezkurra, 1569
plural hurbila	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>-rat</i> adlatiboa	1.3.- Eugi, 1566 (?)
<i>-ro</i> moduzko atzizkia	1.10.- Etxauri, 1598
<i>-tik</i> ablatiboa	1.4.- Ezkurra, 1569; 1.9.- Otsagabia, 1598; 1.10.- Etxauri, 1598
<i>-txo</i> txikigarria	1.3.- Eugi, 1566
<i>zerbait</i> izenordaina	1.10.- Etxauri, 1598

Aditz morfologia

* <i>edun</i> aditzaren agintera trinkoa	1.4.- Ezkurra, 1569
* <i>eradun</i> erroa (batzuetan <i>-i(n)</i> -ekin batera)	1.4.- Ezkurra, 1569; 1.10.- Etxauri, 1598; 1.11.- Muruzabal, 1605; 1.12.- Artaxoa, 1607
* <i>iron</i> erroa	1.1.- Lesaka-Goizueta, 1549
aditz oina	1.7.- Olatz-Txipi, 1596; 1.9.- Otsagabia, 1598; 1.10.- Etxauri, 1598; 1.12.- Artaxoa, 1607
apokopea * <i>ezan</i> aginterazko adizkietan berorikako tratamendua	1.10.- Etxauri, 1598
<i>eduki</i> aditzaren baldintza trinkoa	1.10.- Etxauri, 1598
<i>egin</i> aditzaren agintera trinkoa	1.4.- Ezkurra, 1569
<i>egon</i> aditzaren agintera trinkoa	1.2.- Eugi, 1565
<i>egon</i> aditzaren forma trinkoa	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>-en</i> geroaldiko aspekturako	1.7.- Olatz-Txipi, 1596
<i>erran</i> aditza Nor-Nori erregimenean	1.5.- Larrasoaña, 1579
<i>erran</i> aditzaren agintera trinkoa	1.5.- Larrasoaña, 1579
<i>etorri</i> aditzaren agintera trinkoa	1.5.- Larrasoaña, 1579
hikako adizkiak	1.2.- Eugi, 1565; 1.3.- Eugi, 1566 (?); 1.4.- Ezkurra, 1569; 1.8.- Puiu, 1596; 1.9.- Otsagabia, 1598
<i>-ie</i> forma epentetikoa <i>joan</i> aditzaren trinkoan	1.9.- Otsagabia, 1598 (?)
iraganeko <i>-n</i> -ren falta	1.10.- Etxauri, 1598
<i>iritzi</i> aditzaren forma trinkoa	1.11.- Muruzabal, 1605
<i>jakin</i> aditzaren baldintza trinkoa	1.5.- Larrasoaña, 1579
<i>jin</i> aditzaren agintera trinkoa	1.5.- Larrasoaña, 1579; 1.12.- Artaxoa, 1607 (?)
<i>joan</i> aditzaren agintera trinkoa	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>-ke</i> geroaldi marka gisa	1.4.- Ezkurra, 1569
<i>l</i> iragan imperfektiboko adizkietan	1.7.- Olatz-Txipi, 1596
<i>lagundu</i> aditza Nor-Nori erregimenean	21
<i>-nd</i> iraganeko adizkietan	1.1.- Lesaka-Goizueta, 1549
<i>-rik</i> partizipioa	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>-z</i> gabeko * <i>edin</i> erroko agintera 3. pl.-ean	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>-zu</i> plurala	1.4.- Ezkurra, 1569; 1.11.- Muruzabal, 1605 (?)
zukako alokutiboa	1.9.- Otsagabia, 1598

Sintaxia

- <i>agatik</i> funtzio kausalean	1.6.- Urrotz, 1588
- <i>ala</i> / - <i>ela</i> txandaketa menderagailu osagarrian	1.5.- Larrasoaña, 1579 (?)
Baldintza: [aditz oina + <i>ba-</i> + * <i>edin</i> /* <i>ezan</i>]	1.7.- Olatz-Txipi, 1596; 1.9.- Otsagabia, 1598

Aldaerak eta hiztegia

<i>alonbra</i>	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>apur</i>	1.3.- Eugi, 1566
<i>artzai</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>atsegin hartu</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>atxeki</i> ‘piztu, gorde’	1.4.- Ezkurra, 1569 (?)
<i>aurre</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>bage</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>baize</i> ‘baizik’	1.8.- Puiu, 1596
<i>baizi</i> ‘baizik’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>baizik</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>baldinba</i> aditzondoa	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>balin</i> eta <i>baldin</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>baldin</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>banatu</i> ‘hedatu’	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>baze</i> ‘baizik’	1.7.- Olatz-Txipi, 1596
<i>bearri</i> ‘kirten’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>begiratu</i> ‘kontuz ibili’	1.3.- Eugi, 1566
<i>bekatari</i>	1.4.- Ezkurra, 1569 (?)
<i>bertze</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>bigel</i>	1.3.- Eugi, 1566
<i>bufeta</i> ‘zaplastekoa’	1.6.- Urrotz, 1588
<i>deus</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>eduki</i> ‘mantendu’	1.2.- Eugi, 1565
<i>egin</i> ‘ekin’	1.4.- Ezkurra, 1569 (?)
<i>esan</i>	1.12.- Artaxoa, 1607 (?)
<i>erakutsi</i> ‘sofriarazi’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>erran</i>	1.1.- Lesaka-Goizueta, 1549; 1.10.- Etxauri, 1598; 1.11.- Muruzabal, 1605; 1.12.- Artaxoa, 1607
<i>eze azalpenezkoa</i>	1.10.- Etxauri, 1598; 1.12.- Artaxoa, 1607
<i>ezen azalpenezkoa</i>	1.3.- Eugi, 1566
<i>ezkila</i>	1.4.- Ezkurra, 1569
<i>giza aldarre</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>heldu</i> ‘elkartu, topatu’	1.7.- Olatz-Txipi, 1596
<i>hotz</i> ‘huts’	1.6.- Urrotz, 1588 (?)

Aldaerak eta hiztegia

<i>i(t)suski</i> ‘erratz’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>ilarrozaldi</i> ‘astinaldi’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>ilki</i> ‘atera’	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>iradoki</i> ‘esanaazi’	1.10.- Etxauri, 1598
<i>izterzain</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>Jainko</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>jin</i>	1.9.- Otsagabia, 1598, 1.12.- Artaxoa, 1607 (?)
<i>jo</i> ‘larrua jo’	1.3.- Eugi, 1566
<i>leku egin</i>	1.4.- Ezkurra, 1569
<i>mutilko</i>	1.7.- Olatz-Txipi, 1596
<i>nagusi</i>	1.12.- Artaxoa, 1607
<i>oian</i>	1.9.- Otsagabia, 1598
<i>oraiko</i> eta <i>oraingo</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>salsa</i> ‘nahas-mahasa’	1.10.- Etxauri, 1598
<i>sudu</i> ‘interes’	1.10.- Etxauri, 1598
<i>urruti</i>	1.10.- Etxauri, 1598
<i>zar</i> hanpatzailea	1.9.- Otsagabia, 1598

3. ERREFERENTZIAK

- ALDAI, G., 2000, «Split ergativity in Basque: The pre-Basque antipassive-imperfective hypothesis», *Folia Linguistica Historica*, 21, 31-97.
- 2008, «Sobre el significado arcaico de las formas con prefijo *l-*: su uso en Lazarraga», *FLV*, 108, 301-327.
- ALTUNA, P., 1992, «Ochoa de Arin-en Doctrina Christiana-ren (1713) hizkeraren laburpena», *Euskera*, 37: 1, 573-589.
- AREJITA, A., 1983, «“Canción vizcayna” Domingo Egikori gorazarre kantua (XVII. mendea)», *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 137-181.
- ARIZTIMUÑO, B., 2013a, «Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar», in R. Gómez *et al.* (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 41-60.
- 2013b, «Finite Verbal Morphology», in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, Frankfurt am Main, Peter Lang, 359-427.
- AZKUE, R. M., 1969 [1923-1925], *Morfología Vasca*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- 1935, «Evolucion de la lengua vasca», *Euskera*, 16: 1-2, 57-120.
- BB = Lakarra, 1984.
- BILBAO, G. *et al.*, 2012, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa* (2.0), Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: 2015/04/10].
- prestatzen, «Gabriel Echart zuberotarraren eta Miguel Ros erronkariarraren arteko gutun-neria (1615-1617)», UPV/EHU.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- 2003a, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV*, 94, 427-468.
- 2003b, *Hego-Nafarrera*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Donostia, Elkar.

- 2011, «Ekialdeko euskararen iraganaz», in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina, ASJU*ren gehigarriak 69, Bilbo, UPV/EHU, 87-153.
- 2013, «Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia», in R. Gómez *et al.* (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 77-140.
- ConTAV = Sarasola, 1983.
- CREISSELS, D. eta MOUNOLE, C., 2011, «Animacy and spatial cases: Typological tendencies, and the case of Basque», in S. Kittilä, K. Västi eta J. Ylikoski (arg.), *Case, Animacy and Semantic Roles*, Typological Studies in Language 99, Amsterdam eta Philadelphia, John Benjamins, 157-182.
- ERDOZIA, J. L., 2001, «Sakana erdialdeko euskara», UPV/EHUko doktorego tesia.
- Errorrk* = Bilbao *et al.*, prestatzen.
- EtX* = Etxepare, 1545.
- ETAIDE, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele, Morpain.
- ETXEPARE, R., 2001, «Nz-bait izenordain zehaztugabeen jatorriaz», *Lapurdum*, 6, 93-11.
- EUSKARA INSTITUTUA eta EHU, s.d., *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Interneten eskuragarri: <www.ehu.eus/seg> [Kontsulta: 2015/05/17].
- FHV = Mitxelena, 1990 [1961/1977].
- GÓMEZ-LÓPEZ, R., 2015, «XVIII. mendeko aditz taula batzuk: Joanes Erauskinen eskuizkribua», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenaje, Homenaje*, Bilbo, UPV/EHU, 277-289.
- GORROCHATEGUI, J. eta LAKARRA, J. A., 2001, «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in F. Villar eta M.^a P. Fernández (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca, Salamancako Unibertsitatea, 407-438.
- HUALDE, J. I. eta GAMINDE, I., 1998, «Vowel interaction in Basque: a nearly exhaustive catalogue», *Studies in the Linguistic Sciences* 28: 1, 41-77.
- IBARRA, O. 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Iruñea, Nafarroako Gobernu.
- 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- KINTANA, X., 2004, «Joan Perez Lazarragakoaren izkribuaren inguruan», *FLV*, 97, 581-595.
- LAFON, R., 1999 [1956], «Les formes verbales de prétérit à préfixe *l-* dans les textes du XVII^e siècle», berrarg. in J. Harischelhar eta P. Charritton (arg.), *Vasconiana*, Iker 11, Bilbo, Euskaltzaindia, 459-473.
- 1999 [1966], «La particule *bait* en basque: ses emplois morphologiques et syntactiques», berrarg. in J. Harischelhar eta P. Charritton (arg.), *Vasconiana*, Iker 11, Bilbo, Euskaltzaindia, 667-687.
- LAKARRA, J. A., 1982, «XVIII. mendeko zenbait billantziko berri», *ASJU*, 16, 69-113.
- 1983, «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU*, 17, 41-68.
- 1984, «Berto Bizkaitarrak (1688) », *ASJU*, 18: 2, 89-184.
- 1996, *Refranes y sentencias (1596): edizioa eta azterketa*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar bide berri», *ASJU*, 31: 2, 447-535.
- 2006, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in J. A. Lakarra eta J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask* (=ASJU, 40: 1-2), 561-622.
- 2008, «Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar osinetan zehar)», in X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, ASJUren gehigarriak 51, Bilbo, UPV/EHU, 451-490.
- 2011, «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina, ASJU*ren gehigarriak 69, Bilbo, UPV/EHU, 155-241.
- 2015, «*Saratsola* eta (aitzin) euskar(ar)en geruzak», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenaje, Homenaje*, Bilbo, UPV/EHU, 419-439.
- Laz* = Bilbao *et al.*, 2012.
- LEKAROZ, G., 2015, «Basaburu txikiko euskararen lekukoak (II)», *FLV*, 119.
- MANTEROLA, J., 2012, «*-a* morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui eta B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, Bilbo, UPV/EHU, 71-95.

- M* = Maiora 2011.
- MAIORA, F., 2011, *Reino de Navarra. Euskera: Injurias, coplas, frases*, Egilearen argitalpena.
- MARTÍNEZ-ARETA, M., 2013, «Demonstrative and personal pronouns», in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, Mikroglottika 5, Frankfurt am Main, Peter Lang, 283-321.
- MITXELENA, K., 1990 [1961/1977], *Fonética histórica vasca*, berrarg., in *ASJU*ren gehigarriak 4, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 1990 [1964], *Textos arcaicos vascos*, berrarg., in *ASJU*ren gehigarriak 11, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- 1978, «Miscelánea filológica vasca», *FLV*, 29, 208-218.
- 1979, «Miscelánea filológica vasca. IV», *FLV*, 33, 377-406.
- MITXELENA, K., eta SARASOLA, I., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- MOUNOLE, C., 2011, «Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique», UPV/EHUko eta Bordeaux III unibertsitateetako doktorego tesia.
- OA* = Otxoa Arin, 1713.
- OEH* = Mitxelena eta Sarasola, 1987-2005.
- ONDARRA, F., 1981, «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV*, 38, 147-174.
- OTXOA ARIN, J., 1713, *Doctrina Christianaren Explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itz eguiten dan moduan*, Donostia, Pedro de Ugarte.
- PADILLA, M., 2013, «Euskararen laguntzaile ahantzia: *iron aditzaren historia», *FLV*, 116, 131-170.
- REGUERO, U., 2012, «Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik», *ASJU*, 46: 2, 63-160.
- 2013, «Euskararen dialektalizazioaren hastapenetarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan», in R. Gómez et al. (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 431-444.
- 2015, «Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi-nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatje, Homenaje*, Bilbo, UPV/EHU, 587-598.
- RS* = Lakarra, 1996.
- SALABERRI, P., 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- 2000, «Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskararen gainean», *Euskera*, 45: 2, 881-920.
- 2008, «Altxorren bila: Lizarraga Elkanokoaren aberastasunak kaustu nahiz», in Euskaltzaindia (arg.), *Jean Harischelhar-i omenaldia*, Iker 21, Bilbo, Euskaltzaindia, 597-616.
- SALABERRI, P. eta URRIZOLA, R., 2008, «Hiriberri Arakilgo predikuak I: transkripzioa eta azterketa», *FLV*, 108, 263-290.
- SALABERRI, P. eta ZUBIRI, J. J., 2007, *Biraoak: Nafarroan bilduak*, Iruñea, Pamiela.
- SANTAZILIA, E., 2010, «Un retrato del artículo vasco en el año 1895, mediante el programa VDM», in G. Aurrekoetxea eta J. L. Ormaetxea (arg.), *Tools for Linguistic Variation, ASJU*ren gehigarriak 53, Bilbo, UPV/EHU, 175-205.
- SARASOLA, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17, 69-212.
- SATRUSTEGI, J. M., 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- 1996, «Goizuetako udal ordenantzak», *FLV*, 72, 297-316.
- TAV* = Mitxelena, 1990 [1964].
- TRASK, R. L., 1997, *The History of Basque*, Londres, Routledge.
- URRIZOLA, R., 2006, «Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera», *FLV*, 102, 255-270.
- 2007, «El euskera en Pueyo», *FLV*, 105, 299-302.
- ZELAIETA, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- ZUBIRI, J. J., 2014, «Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840», *FLV*, 118, 279-320.

I. ERANSKINA

Leku izenak

Abaurrea (13g)
 Aezcoa (13g)
 Arane, en tierra de Sola (8g) / Arane (103a)
 Bereterresse (194g)
 borda de Çamayngudua (29a) [Otsagabian]
 cabaña de Betzula (20a)
 del lugar de Alçay, de la casa de Yrigaray, tierra de Sola (113a)
 Echabar (13a) / Echabarren (13g)
 en el lugar de Dona Graçia, que esta a dos legoas de Larrayn (93a)
 endrecera llamada Osarate (32 bis a)
 Garayoa (63g)
 Guessa (8g)
 la casa de Eyeramendia [Santagrazin] (93a)
 la endreçera que llaman Equia (92g)
 Lacarri (10g)
 Lapiz Erreca (20a)
 Larrayn o Larraun, que todo es uno, por nombrarse en basquenze Larrayn
 y en romançe Larraun (111g)
 Liguì (13a)
 Linçoin (63g)
 Montori, que se dize Benoriçe (9a) / Benoriçe (7a)
 natural basco del lugar de Donaçar (50g)
 puerto de Ori (3g)
 puerto de Picatua (5g)
 Santa en Gracia (6g)
 señor de Lussa (10g)
 Tardez (10a)
 un hijo de Carrica Yri de Barcox (9a)
 un lugar llamado Lauribarry (35g) / en tierra de Bascos, al lado del puerto,
 en una casa llamada Lauribarri (49a)
 un lugar llamado Mendibe (49a)
 unos prados que llama landas (31a)
 Uztarroz (33g)
 Yssaba, en el valle de Roncal (6a)
 Zunarre (14a)

Pertsona Izenak

Arnaut de Vehety, residente en Bereterresse (194g)
 Arnaut Sanz Mearçu, dicho Peirot (7g) / Hernaut Sanz, dicho Peyrot (64a)
 Barrenquet de Barcox (9a)
 Bernart Esseverri Garay (5a)
 Borda de Exeberri en Lapiz Erreca (20a)
 Catalina Xemero (108g)
 Catelina Semero (30a)

Charles Morea (5a)
 Charles Torrea (9g)
 Charles Udi, vezino de Ezcaroz (100a)
 Domingo de Bagayar (5g)
 Elgoyen, vezino de Larrayn (100a, g)
 Eneco Menaut (30a)
 Esseco Jauna (5a)
 Gracian Crucheaga (135g)
 Guixontoa (4g)
 Iñigo Landa (5g)
 Joan de Araynti, vezino del lugar de Arane (103a)
 Joane Açiri (5a)
 Joanes Bastaguilearena (92g)
 Joanes Bereter (63a)
 Joanes de Yrigaray, dicho Carricaburu, vezino del lugar de Larraun (112g, 113a)
 Joanes Gorriola, dicho Guindaburu (133a)
 Joanes Yriguibebe (56g) / Joanes Yriguibela (119g)
 Joanico de Beorleguy (48g)
 Josephe de Arabera, vezino de la villa de Tardez (123a)
 llamado Achiriach(?) de Larraun (46a)
 llamado en bascuence Jaurrietaco Axaria (62g)
 llamado Sarria (43a)
 llamado Unaya (38g)
 Lope de Sparca (43a) / Lope de Desparça (43a)
 Martin Landa y Martin Garate, vezinos del lugar de Abaurrea de la tierra de Aezcoa (13g)
 Martinico (28g)
 Mendiondo de Larraun (7g)
 Pedro Aroça (32 bis a)
 Pedro Essandi (8a)
 Pedro Martinibar, alias Xamarguillearena (179g)
 Pedro Motarregui, bezino de Echabar de tierra de Sola, junto Ligui de Sola (13a)
 Pedro o Petiri (45g)
 Petilli Vidart, llamado Vacossa (4g) / Pedro Vidart, dicho Vacossa (6a)
 Petri Barber (6a)
 Petri de Ezpel (13a)
 Petri Lexardot (42g) / Petri Lexardoat (44g)
 Petrisanz, vecino del lugar de Lacarri de tierra de Sola (10g)
 Peyrot de Larraun (2a)
 Sarrall de Barcox (10a)
 un ombre de alli [Larrañekoa], llamado Orague (50g)
 Yjurco(?) seme, dicho Anchot (6a) / llamado Anchot, hermano de Serralde (46g)
 Yñigo Adot (44r)
 Yriart de Zunarre (14a)

LABURPENEA

Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gebiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari

F. Maiorak 2011n *Reino de Navarra. Euskera: injurias, coplas, frases* [Nafarroako Erresuma. Euskara: Irainak, koplak, esaldiak] liburuia karrikaratu zuen. Nafarroako Artxibo Orokorrean han-hemenka aurkitutako euskal testu zaharren bilduma honek berebiziko garrantzia du euskararen iraganaren ikerketarako, alde batetik garai eta toki askotako lekukotasun zaharrak biltzen baititu, eta bestetik bertan jasotzen den euskara ahozko moldetik hurbil baitago; zeinahi literatur kutsutik at. Baina argitalpenaren hedatze mugatuak, testuen irakurketa oker edo partzial zenbaitek eta azterketa filologiko zein linguistikoko baten faltak corpus ikaragarri honen ustiapena zaildu du. Horri erantzun nahian, artikuluko corpus liburuiko pasarte batzuk hautatu ditugu, eta lekukotasunak finkatu, zuzendu eta zenbaitetan zabaldu ondoren, azterketa linguistikoa egin dugu.

Gako hitzak: edizioa; euskara arkaikoa; Fernando Maiora; lekukotasunak; Nafarroa.

RESUMEN

Nuevos testimonios del euskera navarro del periodo arcaico: adiciones y correcciones al libro de F. Maiora

F. Maiora publicó en 2011 el libro *Reino de Navarra. Euskera: injurias, coplas, frases*. Esta colección de textos euskéricos antiguos encontrados de manera disseminada en el Archivo General de Navarra tiene una importancia enorme para la investigación del pasado de la lengua vasca, por un lado porque recoge testimonios antiguos de numerosos lugares y épocas, y por el otro porque el euskera ahí empleado está muy próximo a la variedad hablada; lejos del todo toque literario. Pero la limitada difusión de la publicación, ciertas lecturas parciales o erróneas de los textos y la ausencia de un estudio filológico y lingüístico han dificultado el aprovechamiento de este ingente corpus. En respuesta a ello, en este artículo hemos seleccionado algunos fragmentos extraídos del libro, y tras fijar, corregir y, en ocasiones, ampliar los testimonios, hemos realizado un estudio lingüístico de los mismos.

Palabras clave: edición; euskera arcaico; Fernando Maiora; Navarra; testimonios.

ABSTRACT

New attestations of the Navarrese Basque from the archaic period: additions and corrections to F. Maiora's (2011) book

F. Maiora published in 2011 the book *Reino de Navarra. Euskera: injurias, coplas, frases* [Kingdom of Navarre. Basque: insults, songs, sentences]. This book compiles old Basque texts found disseminated in the General Archive of Navarre. The book has an enormous relevance for the study of the past of the Basque language, on the one hand because it includes old attestations from multiple periods and places, and on the other hand, because the Basque language attested there is close to the spoken variety; far from any literary style. Nevertheless, the limited dissemination of the publication, some wrong or partial interpretations of the texts and the lack of a philological and linguistic analysis of the data have complicated the exploitation of this vast corpus. In response to this, this paper provides a thorough linguistic analysis of some selected passages from the book.

Keywords: archaic Basque; attestations; edition; Fernando Maiora; Navarre.

Noiz jaso: 2015/05/22.

Noiz onartua: 2015/05/26.